# LANKIDETZA DESZENTRALIZATUA

# 2022KO TXOSTENA

Garapenerako laguntza ofizialaren kopuruak (2016-2020) eta mundu-mailako tokiko eta eskualdeko gobernuen zuzeneko lankidetzako kasuak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Egileak: Aitor Pérez, Beatriz Ruiz eta David Utrero, Economistas de la Cooperación SL (ECOPER)

Azterketa honen egileek eskerrak eman nahi dizkiete eLankidetzari mandatuagatik eta haren langileei, batez ere Maite Garmendiari, Noemi de la Fuenteri eta Paul Ortegari, azterketa honen diseinuari eta egikaritzeari egindako ekarpenengatik. Era berean, eskerrak eman nahi dituzte eranskin metodologikoan zerrendatutako erakunde analizatuen lankidetzagatik eta Euskal Herriko Unibertsitateko Jorge Gutierrez Goiriak txosten honen zirriborroari buruz egindako iruzkinengatik.

Txostenean adierazitako balorazioak eta iritziak egileen erantzukizun esklusiboak dira eta ez dute nahitaez islatzen eLankidetzaren jarrera.

Txostenaren edukiari buruzko edozein zalantza edo iradokizun izanez gero, hona jo dezakete irakurleek:

economistas de la cooperación

**Economistas de la Cooperación SL (ECOPER)**
World Trade Center. Torre Oeste, Planta 15 · 50018
Zaragoza (Spain)
(+34) 976 011 432
www.ecoper.eu
**ecoper@ecoper.eu**

# AURKIBIDEA


Akronimoak ... 3

Hitzaurrea ... 5

Sarrera ... 7

1. Lankidetza deszentralizatuaren analisia ... 8

  1.1. Kontzeptualizazioa ... 9

  1.2. Lankidetza deszentralizatuari buruzko azterketak eta eztabaidak ... 9

  1.3. Proposatutako analisi kuantitatiboa ... 12

  1.4. Proposatutako analisi kuantitatiboa ... 14

2. Laguntza deszentralizatua zenbakitan ... 15

  2.1. GLODaren garrantzia eta eboluzioa ... 16

  2.2. GLODaren kategoriak ... 17

  2.2. Lankidetza deszentralizatuaren eragileak ... 18

  2.4. Lankidetza deszentralizatuaren profilak ... 21

3. Zuzeneko lankidetza deszentralizatua: kasu-azterketak ... 36

  1. kasua. Frantziako udalerrien laguntza teknikoa ... 37

  2. kasua. Flandriako Gobernuaren zuzeneko lankidetza Afrikako gobernuekin ... 39

  3. kasua. Valentziako Generalitateko osasun-langileen mobilizazioa ... 41

  4. kasua. Espainiako toki-gobernuen lankidetza eta elkartasuneko funtsak ... 43

  5. kasua. Andaluziako zuzeneko lankidetza ... 45

  6. kasua. Japoniako prefekturen eta hirien lankidetza teknikoa ... 47

  7. kasua. Ertamerika-Euskadi erakunde arteko lankidetza uraren eta saneamenduaren arloan49

Ondorioak ... 51

Erreferentziak ... 53

I. eranskina. Metodologia ... 57

II. eranskina. GLODari buruzko datuak, 2020 ... 62

# AKRONIMOAK

| | |
|---|---|
| AACID | Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Andaluziako Agentzia |
| | *Agencia Andaluza de Cooperación Internacional para el Desarrollo* |
| AECID | Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia |
| | *Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo* |
| AECT | Lurralde-Kolektibitateen Kanpo-Ekintza |
| | *Acción Exterior de las Colectividades Territoriales* |
| AESN | Sena-Normandiako Uraren Agentzia |
| | *Agence de l'eau Seine-Normandie* |
| AIMF | Alkate Frankofonoen Nazioarteko Elkartea |
| | *Association Internationale des Maires Francophones* |
| AMVISA | Gasteizko Udal Urak SA |
| ANDA | El Salvadorko Akueduktuen eta Estolderien Administrazio Nazionala |
| | *Administración Nacional de Acueductos y Alcantarillados de El Salvador* |
| AyA | Costa Ricako Akueduktuen eta Estolderiaren Institutua |
| | *Instituto Costarricense de Acueductos y Alcantarillados* |
| CIMEQ | Ikerketa Mediko eta Kirurgikoen Kubako Zentroa |
| | *Centro de Investigaciones Médico Quirúrgicas de Cuba* |
| CGLU | Hiri eta Toki Gobernu Batuak |
| | *Ciudades y Gobiernos Locales Unidos* |
| CONFOCOS | Lankidetza eta Elkartasun Funtsen Konfederazioa |
| | *Confederación de Fondos de Cooperación y Solidaridad* |
| CRS | Creditor Reporting System |
| DAECT | Lurralde Kolektibitateen Kanpo Ekintzarako Ordezkaritza |
| | *Delegación para la Acción Exterior de las Colectividades Territoriales* |
| DGPOLDES | Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioko Garapen Jasangarriko Politiken Zuzendaritza Nagusia (Espainiako Gobernua) |
| | *Dirección General de Políticas de Desarrollo Sostenible del Ministerio de Asuntos Exteriores, Unión Europea y Cooperación (Gobierno de España)* |
| EB | Europar Batasuna |
| ECADERT | Lurraldeko Landa Garapenerako Ertamerikako Estrategia |
| | *Estrategia Centroamericana de Desarrollo Rural Territorial* |
| ELGA | Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea |
| EMT | Larrialdietako Talde Medikoak |
| | *Emergency Medical Teams* |
| ERA | Ingurumena-Ikerketa Ekintza |
| | *Environnement Recherche Action* |
| EXPE-CT | Toki-agintaritzen esperientziaren ziurtagiria |
| | *Certificación Experiencia de las Autoridades Locales* |
| FELCODE | Garapenerako Lankidetzaren Extremadurako Toki Funtsa |
| | *Fondo Extremeño Local de Cooperación al Desarrollo* |
| GGKE | Garapenerako gobernuz kanpoko erakundea |
| GIB | Giza immunoeskasiaren birusa |
| GJH | Garapen jasangarrirako helburua |
| GKE | Gobernuz kanpoko erakundea |
| GLB | Garapenerako Laguntzaren Batzordea |
| GLD | Garapenerako lankidetza deszentralizatua |
| GLEB | Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea |

| | |
|---|---|
| GPK | Garapenerako politiken koherentzia |
| GLO | Garapenerako laguntza ofiziala |
| GLOD | Garapenerako laguntza ofizial deszentralizatua |
| STI | Sexu-transmisiozko infekzioa |
| JICA | Nazioarteko Lankidetzaren Japoniako Agentzia |
| | *Japan International Cooperation Agency* |
| JPP | JICA Lankidetza Programa |
| | *JICA Partnership Program* |
| LBT | Lankidetza-bulego teknikoa |
| MAP | Herrialderako Elkarketa Esparru |
| | *Marco de Asociación País* |
| MODEAB | Bangangtéko komunako uraren eta saneamenduaren sektoreetako proiektuen kudeaketa jasangarri |
| OME | Osasunaren Mundu Erakundea |
| PACODE | Garapenerako Lankidetzaren Andaluziako Plana |
| | *Plan Andaluz de Cooperación para el Desarrollo* |
| PCDEA | Uraren eta Saneamenduaren Arloko Garapenerako Plan Komunala |
| | *Plan Comunal de Desarrollo en materia de Agua y Saneamiento* |
| SABES | Oinarrizko Saneamenduaren, Osasun Hezkuntzaren eta Ordezko Energiaren El Salvadorko Elkartea |
| | *Asociación Saneamiento Básico, Educación Sanitaria y Energías Alternativas en El Salvador* |
| SAS | Andaluziako Osasun Zerbitzua |
| | *Servicio Andaluz de Salud* |
| SIAAP | Parisko Aglomerazioko Uraren Sail Arteko Sindikatua |
| | *Syndicate Interdepartemental pour l' Assainissement de l' Agglomeration Parisienne* |
| SICA | Ertamerikako Integrazioaren Sistema |
| | *Sistema de la Integración Centroamericana* |
| START | Larrialdietan Laguntzeko eta Erantzuteko Espainiako Talde Teknikoa |
| | *Spanish Technical Aid Response Team* |
| URA | Uraren Euskal Agentzia |

# HITZAURREA

Nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren eremuan, estatu azpiko gobernuek bultzatzen duten lankidetza, hau da, lankidetza deszentralizatu gisa deiturikoa, ezezagun handia da. Ez zaio inoiz ez arreta ez balorazio nahikorik eman. Zalantzarik gabe, haren askotariko ikuspegiak eta esku-hartzeak direla eta, ez da erraza haren jarraipena, azterketa eta katalogazioa egitea.

Hala ere, lankidetza deszentralizatuak, osorik hartuta, zenbait hamarkadako ibilbide oso adierazgarria eta bakana egin du, pertsonen eta herrien bizi-baldintzak hobetzeko eta pobreziaren eta desparekotasunaren aurka borrokatzeko konpromiso eta dedikazioarekin. Haren ibilbidea eta bilakaera nazioarteko erakundeen aintzatespena lortzen hasi dira, batez ere 2030 Agenda eta garapen jasangarrirako helburuak onartzearen ondorioz, sozietate zibilarekin batera tokiko eta eskualdeko gobernuei ematen dien zereginagatik.

Gaiari buruzko argitalpen eta azterketa garrantzitsuak egin diren arren, batez ere lan akademikoak eta lurralde zehatzetan ardaztuak, lan honen helburua da ezagutza eta analisi konparatuari dagokionez dagoen hutsune handi bat betetzea.

William Thomson Kelvin matematikariak esan zuenez, neurtzen ez dena ezin da hobetu eta hobetzen ez dena degradatu egiten da. Horregatik, txosten honen ondorioetan jasotzen den moduan, erabat ezinbestekoa da nazioarteko lankidetza-erakundeek eragile deszentralizatuen lankidetzari eta garapenerako laguntza ofizialari buruzko informazioa behar bezala bildu, prozesatu, sailkatu eta zabaltzea.

Nolanahi ere, hasi berri dugun txosten-lerro honekin, eLankidetza – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren xedea da lankidetza deszentralizatuak daukan potentzial itzela aintzatesten eta hedatzen laguntzea. Aurrekontuaren aldetik izandako hazkunde jarraituaz haraindi, haren jarduketa ugariren balio diferentzial eta berritzaile altua eta aliantzak eraikitzeko duen gaitasuna dira azpimarratzekoak. Kasu askotan, ekimen horiek sozietate zibileko erakundeekin (GGKE-ekin eta toki-erakunde bazkideekin) elkarlanean egiten dira, elkartasun-sareak eraikitzen dituzte eta tokian tokiko askotariko eragileak modu antolatuan mobilizatzen dituzte. Argitalpen honetan, zuzeneko lankidetza deszentralizatuko kasu-azterketak biltzen dituen apartatu bat sartu da, haien balio diferentziala laburki erakusteko.

Sinetsita gaude lankidetza deszentralizatuaren arloan onena heltzeke, eraikitzeke dagoela. Lankidetzaren botere eraldatzaile izugarrian uste osoa dugu eta, duela urte batzuk autonomia-erkidegoen topaketa batean formulatu genuen moduan, posible da eremu txikietatik mundua aldatzen laguntzea.

Espero dugu txosten honek lankidetzari eta elkartasunari buruzko elkarrizketa eta eztabaida publikorako ekarpen garrantzitsua egitea, lankidetza eta elkartasuna ezagutzen, hedatzen eta haien balioa azpimarratzen laguntzea eta lankidetza deszentralizatuaren eragileen lana inspiratzea eta indartzea. Ildo horretan, gure erakundeen eta beste entitate aliatu batzuen lanak ematen dio zentzua argitalpen honi. Honako hauek, bereziki: PLATFORMA, hirien eta eskualdeen garapenerako lankidetzaren koalizio paneuroparra; autonomia-erkidegoetako lankidetzarako agentziak eta zuzendaritzak; lankidetza eta elkartasunerako funtsak (Lankidetza eta Elkartasun

Funtsen Konfederazioan taldekatuak) eta, batez ere, gure Euskal Fondoa; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak; Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Udalak, besteak beste; eta sozietate zibileko beste eragile batzuek, bereziki GGKEen koordinakundeak eta guri dagokigunez Euskadikoak, betetzen duten zeregin garrantzitsua.

Paul Ortega Etcheverry
eLankidetza zuzendaria

# SARRERA

Txosten hau eLankidetza – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren mandatuz egin da, lankidetza deszentralizatuaren ezagutza eta balioespena areagotzen laguntzeko helburuarekin. Jarraian ikusiko den moduan, lankidetza deszentralizatuak, alegia, estatu azpiko gobernuek garapenerako lankidetzaren nazioarteko sisteman parte hartzeak, nazioarteko erakundeen eta zenbait analistaren arreta gero eta handiagoa erakarri du. Hala ere, ez dago lankidetza-mota horren aldizkako jarraipena egiteko sistemarik. Txosten honen helburua da, hain zuzen ere, hutsune hori betetzea eta estatu azpiko gobernu-mailatik bultzatzen den garapenerako laguntza ofizialaren analisi sistematikoa egitea, haren egokitasunari eta eraginkortasunari buruzko gogoeta errazteko.

Txostena honela egituratuta dago. 1. atalean, lanak oinarri hartzen dituen funtsezko kontzeptuak definitzen dira, lankidetza deszentralizatuaren kontzeptua bera eta haren modalitate edo kategoria guztiak barne. Gaiari buruzko azterketa eta eztabaida nagusiak berrikusi ondoren, txostenaren helburuak eta proposamen metodologikoak zehazten dira. Alde batetik, garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuari (GLODari) buruzko analisi kuantitatibo erregular eta sistematikoa, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen (ELGAren) estatistiketan oinarritua. Beste aldetik, eraginkortasunari eta egokitasunari buruzko gogoeta elikatzen duten lankidetza deszentralizatuaren kategoriei eta kasuei buruzko analisi kualitatiboagoak.

2. atalean, analisi kuantitatiboaren emaitzak aurkezten dira. GLODaren bolumena, garrantzia eta bilakaera, haren eragile finantzatzaileak eta kategoria bakoitzaren pisua aztertzen dira, zuzeneko lankidetzan eta, haren barruan, lankidetza teknikoan arreta berezia jarrita. Jarraian, analisi kuantitatibo bera herrialdez herrialde aplikatzen da, estatu bakoitzean garrantzitsuenak diren lankidetza-modalitateak eta haien orientazio sektoriala eta geografikoa zehaztuz. Datuek ahalbidetzen dutenean, herrialde emaile bakoitzean funts gehien dauzkaten hiru eragileen profila ere taxutzen da.

3. atalean zazpi kasu-azterketa jasotzen dira. Horietan, antolaketa-eredu gisa erabil daitezkeen eta lankidetza-mota horren garapena erraztu dezaketen zuzeneko lankidetza deszentralizatuaren modalitateetan sakontzen da. Amaierako atalean bi analisien ondorioak laburbiltzen dira eta, ondoren, xehetasun metodologikoak eta 2020ko GLODari buruzko datu gehigarriak jasotzen dituen eranskin bana gehitu zaizkio txostenari.

# 1.

# LANKIDETZA DESZENTRALIZATUAREN ANALISIA

## 1.1. Kontzeptualizazioa

Europar Batasunean (EBn), «lankidetza deszentralizatu» terminoa finkatu da estatu azpiko gobernuek garapenerako nazioarteko lankidetzan duten partaidetzaz, historikoki gobernu zentralak nagusi izan diren eremu horretaz, hitz egiteko. Adiera zabalenean, terminoak lankidetzaren jatorriari, gauzatzeko bitartekoei edo xedeari egiten die erreferentzia. Adibidez, Europako Batzordeak, «Toki-agintaritzak: garapen-eragileak» komunikazioan, honela definitzen du lankidetza deszentralizatua: «toki-agintaritzek, sareek eta beste toki-eragile batzuek emandako edo haien bitartez bideratutako laguntza publiko eta pribatua» (EB, 2008).

ELGAn (2018, 2019), lankidetza deszentralizatuaren azterketek ere terminoaren adiera zabala erabiltzen dute eta azaltzen dute nola aldatzen den haren esanahia Garapenerako Laguntzaren Batzordeko (GLBko) kide diren herrialdeetan, estatu azpiko gobernuek haien laguntza-sistemetan izan duten partaidetza historikoaren arabera eta laguntzaren finantzatzaile, betearazle edo hartzaile gisa izan dituzten rolen arabera. Adibidez, tokiko eta eskualdeko gobernuek historikoki GLOrako aurrekontuak eduki dituzten herrialdeetan, hala nola Espainian eta Belgikan, lankidetza deszentralizatua parekatu ohi da eskualdeko edo udaletako aurrekontuetatik datorren garapenerako laguntza ofizialarekin. Nazio Batuetan, «lankidetza deszentralizatu» terminoa ez dago hain hedatuta, baina gero eta arreta handiagoa jartzen ari da toki-gobernuek garapenerako duten zereginean eta haien arteko lankidetzan, GLOa harremanotan edozein zeregin dutela ere.

Txosten honetan ere «lankidetza deszentralizatu» terminoa zentzu zabalean erabiltzen da, baina, Espainiako lankidetza deszentralizatuaren eragileen interesari erantzuteko, hiru betekizun betetzen dituzten lankidetza-harremanetan ardazten da:

1. Iparreko estatu azpiko gobernuen baliabideen ekarpenak egiten dituzte;
2. Hegoko herrialdeetan edo eremu globalean garapen-helburuak lortu nahi dituzte;
3. eta elkarrentzako onurak sor ditzaketen baina interes komertzial eta finantzarioek baldintzatuta ez dauden lankidetza-harremanetan oinarrituta daude.

Are gehiago, txostenak GLO gisa zenbatutako estatu azpiko gobernuen ekarpenetan jartzen du fokua eta haien datu-base ofizialean, ELGAk kudeatutakoan, oinarritzen da.

## 1.2. Lankidetza deszentralizatuari buruzko azterketak eta eztabaidak

Lankidetza deszentralizatuari buruzko lehen azterketa handia 2005ekoa da eta «Tokiko eta estatuko gobernuek emandako laguntza» (ELGA, 2005)[1] izan zuen izenburu. Bertan, fenomenoa urtean 800 eta 1.200 milioi dolar bitartean metatzen zituela zenbatetsi zen eta hiru herrialdetara (Belgika, Alemania eta Espainia) zedarriztatu zen, nahiz eta aurrekontu txikiagoko zenbait praktika gauzatzen zituzten beste bederatzi herrialde identifikatu.

[1] ELGAren argitalpen horretan, herrialde federalak hartu ziren erreferentziatzat eta eskualdeko gobernu-mailaz aritzeko erabili zen «estatu» terminoa. Aitzitik, Espainian ekoitzitako dokumentu honetan, «estatu» terminoak gobernu-maila zentrala esan nahi du eta «estatu azpiko» terminoa erabiltzen da eskualdeko eta tokiko gobernu-mailak metatzeko.

Garai berean, aipatutako Europako Batzordearen komunikazioak (EB, 2008) bai laguntzaren hartzaile diren herrialdeetako bai herrialde emaileetako toki-agintaritzek garapenean duten zereginaren balioa azpimarratu zuen. Gobernu-maila horretako nazioarteko lankidetza alderdi hauekin erlazionatu zen: toki-gobernantza, deszentralizazioa oinarrizko zerbitzuen prestazioa hobetzeko estrategia gisa eta herrialde garatuetako toki-gobernuetatik garapen-bidean dauden herrialdeetako beren homologoetara ezagutza eta finantzaketa mugiarazteko aukera.

EBren eremuan, Eskualdeetako Lantaldeak ere eskualdez eskualdeko lankidetza defendatu du historikoki, laguntzaren hartzaile diren herrialdeentzat garrantzitsuak diren politika publikoetan egindako ezagutza-ekarpenean oinarritutako argudioekin. Mundu-eskalan, iritzi bera adierazi zuen Hiri eta Toki Gobernu Batuak (CGLU) elkarteak, zeinaren helburua honako hau baita: «toki-gobernu autonomo eta demokratikoen baterako ahotsa eta mundu-ordezkaritza izatea eta haien balioak, helburuak eta interesak sustatzea, tokiko eta eskualdeko gobernuen arteko lankidetzaren bidez, nazioarteko komunitate zabalean» (uclg.org, 2017).

Hala ere, 2000ko hamarkadaren hasieran EBren, ELGAren eta CGLUren eremuan lankidetza deszentralizatuari buruz egindako analisiok nabarmendu gabe gertatu ziren, beharbada lankidetza-modalitate horrek pisu eskasa daukalako GLO guztiari dagokionez. Are gehiago, Espainia bezalako herrialdeetan, zeinetan laguntza deszentralizatua askoz ere garrantzitsuagoa baitzen, lankidetza deszentralizatuari buruzko eztabaidak Laguntzaren Eraginkortasunaren Agendak baldintzatuta egon ziren hein handi batean, eta ardaztuagoak zeuden lankidetza deszentralizatuaren zatikatzea konpentsatzeko moduan haren abantaila konparatiboak aprobetxatzean baino (González Martín, 2008; De la Fuente eta Fernández, 2009; Martínez eta Sanahuja, 2009, 2010).

2015. urtetik aurrera, lankidetza deszentralizatuaren egokitasunari eta eraginkortasunari buruzko zalantzak behin betiko argitu ziren. Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu ondoren, Nazio Batuek garapen jasangarrirako helburuak tokian tokiko testuinguruan kokatzeko ideia sustatu zuten, alegia, agenda globala lurralde bakoitzaren ezaugarrietara eta inguruabarretara egokitzeko ideia. Horretarako, garapen jasangarrirako helburu (GJH) eta testuinguru bakoitzerako gobernu-maila egokienean gauzatzeko baliabideak eta adierazleak ezarri zituzten. 11. GJHa (hiri eta komunitate jasangarriak) eta 6. GJHa (ur garbia eta saneamendua) tokian tokiko testuinguruan kokatzeko, ezinbestekoa da toki-gobernuek parte hartzea edo are gehiago liderrak izatea. Beste GJH batzuen helmugek ere udaleko edo eskualdeko gobernuen inplikazio aktiboa eskatzen dute, urbanizazioa gero eta handiagoa delako; horrela jarri zen agerian Etxebizitzari eta Hiri Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentzian, zeinaren ondorioz Hiri Agenda Berria sortu baitzen, (NBE, 2017).

Toki-gobernuek Garapen Jasangarrirako Agendan hartu berri duten protagonismoak nazioarteko lankidetzako egituretan eta sareetan ere badaukaten partaidetza birbalorizatu du eta, horrela, ELGAren, EBren eta CGLUren lehengo ikuspegia indartu du. Azken erakunde horrek bere mezuak berriz bultzatu ditu, eremu tematikoko beste hiri-sare batzuk taldekatzen diren *task force* baten bitartez (CGLU, 2015, 2017; Global Task Force, 2015, 2018, 2019, 2021). Zehazki, CGLUk toki-erakundeen arteko ezagutzen transferentzia azpimarratu du, garapen-bidean dauden herrialdeen urbanizazio azkarraren eta administrazio-deszentralizazioaren testuinguruan, Hiri Agenda Berriarekin bat etorriz.

Gainera, lankidetza teknikorako lankidetza iraunkorreko egiturak ezartzeari eman ohi zaio balioa eta, bereziki, Iparreko eta Hegoko tokiko eta eskualdeko gobernuek berdintasun-harremanen bidez eta elkarren onerako ezagutzak trukatzeko sareei. Are gehiago, nazioarteko sare horiek gobernantza globalari egiten dioten ekarpenagatik baloratzen dira, gobernu arteko maila tokiko mailarekin konektatzen dutelako, klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen konferentzietan gertatzen den moduan, adibidez (Ortega, Pérez eta Sanz, 2018).

Ondorioz, lankidetza deszentralizatuari buruzko narratiba bat orokortu eta berritu da, zeinak oinarri hartzen baititu, batetik, estatu azpiko gobernuek beren eskumen-eremuetan metatutako esperientzia eta, bestetik, lankidetza teknikoa gauzatzeko eta 2030 Agendarako laguntza-sareak ezartzeko duten gaitasuna. ELGAk berak, zeinak ikusgai egin baitu lankidetza deszentralizatuaren dibertsitatea, gobernuari lotuen dauden aldaeren alde egiten du. Halaxe adierazi du gaiari buruzko bere azken argitalpenean: «Garapenerako lankidetza deszentralizatua: hirien eta eskualdeen potentziala desblokeatzen». Bertan, lankidetza deszentralizatua hiriz hiriko eta eskualdez eskualdeko lankidetzarekin parekatzen du ia (ELGA, 2019):

> 2030 Agenda, batez ere, toki-agenda da: GJHen helmugen ia % 60 lortzeko, ezinbestekoa da estatu azpiko gobernuek hainbat arlotan zerbitzu publikoak ematea: osasuna, hezkuntza, larrialdietarako prestaketa, ura, energia, etxebizitza, etab. Garapen-bidean dauden herrialde gehienek, zalantzarik gabe, ez dute 2030 Agendako beren konpromisoak beteko gobernu zentralek eta nazioarteko komunitateak ez badute aurkitzen estatu azpiko gobernuek aurre egin behar dieten erabateko finantzaketa-falta eta ezagutza-falta konpontzeko modurik. Dokumentu honek iradokitzen du estatu azpiko gobernu horientzat eskuragarri dagoen finantzaketa-iturri eta esperientzia-iturri bat hein handi batean ustiatu gabe geratu dela eta berrebaluatu beharko litzatekeela: garapenerako lankidetza deszentralizatuak (GLDak), hots, herrialde bateko estatu azpiko gobernuek beste herrialde bateko estatu azpiko gobernuei ematen dieten garapenerako lankidetzak, hazteko ahalmena dauka.

Espainia bezalako herrialdeetan, non laguntza deszentralizatua aldebiko laguntza guztiaren heren bat baita eta nagusiki GKEen edo erakunde sozialen bitartez bideratzen baita, nazioarteko erakundeen mezu horiek lankidetza deszentralizatuaren potentzialtasunari buruzko eztabaida zabala eta egungo planteamenduen berrikuspena bultzatu dituzte (Akhmouch, 2021; Alonso, 2021; Fernández de Losada, 2021; Unceta, 2021; Gutiérrez Goiria *et al.*, 2022; Platforma, 2022). Eztabaida horretan, GJHak tokian tokiko testuinguruan kokatzeko narratiba ez ezik narratiba alternatiboak ere taxutzen ari dira, adibidez, herritarrengandiko eta sozietate zibileko erakundeengandiko hurbiltasuna (Pérez, 2020), justizia soziala katalizatzeko daukan zeregina (Monreal, 2020) eta lankidetza-sistema zabaltzeko eta demokratizatzeko egiten duen ekarpena (Martínez Martínez, 2019).

Azkenik, azpimarratzekoa da akademiak ere jarri duela nolabaiteko arreta estatu azpiko gobernuen laguntzan. Lankidetza deszentralizatua definitzeko eta sailkatzeko lanak 2003an hasi ziren (Hafteck, 2003) eta oraindik ere hobetzen ari dira (Kania, 2021). Gainera, aldizkari akademikoetan bai herrialde zehatz bati buruzko kasu-azterketak (Jain, 2005) bai ikuspegi kuantitatiboko azterketa orokorragoak (Reinsberg eta Dellepiane, 2022) aurki daitezke. Azterketa horiek nazioarteko harremanak direla-eta hartu ohi duten ikuspegia paradiplomazia-azterketen ikuspegiaren antzekoa da; izan ere, azaldu nahi dute zergatik sartzen diren estatu azpiko gobernuak kanpo-ekintzaren eremuan, arlo hori gobernu zentralei dagokien arren. Orobat nazioarteko harremanen barruan, estatu azpiko gobernuek toki-gobernantzan duten zereginari

buruzko interesa areagotu da (Happaerts, 2012). Hala ere, artikulu horiek ez dira nahitaez GLOaren kopuruetan oinarritzen eta ez dute bat egiten estatu azpiko gobernuek garapenerako lankidetzara ekartzen duten balio gehigarriari dagokionez nazioarteko komunitateak darabilen eztabaida teoriko-normatiboarekin.

## 1.3. Proposatutako analisi kuantitatiboa

Nahiz eta alde anitzeko erakundeek gero eta interes handiagoa eduki estatu azpiko gobernuen nazioarteko lankidetzan, ez dago gaiari buruzko aldizkako txosten sistematikoak ekoizten dituen nazioarteko iturri ofizialik. ELGAk, GLOaren kontabilitate-jarraipena eta elkarrekiko ebaluazioa egiteko arduradunak, ez du urteko txostenik argitaratzen GLODari buruz, baina bai, adibidez, sozietate zibileko erakundeen bitartez bideratutako laguntzari buruz[2]. Are gehiago, haren datu-baseek ez dituzte laguntza zentralizatua eta deszentralizatua bereizten, nahiz eta jardueraren araberako xehakapenean azaldu zein den erakunde emailea edo eragilea.

Txosten honen xedea hutsune hori betetzea da. Horretarako, ELGAk laguntza-jarduerei buruzko bere datu-basean, hots, *Creditor Reporting System* (CRS) datu-basean, zerrendatutako eragile finantzatzaileak[3] banan-banan berrikusiko dira eta emaile zentralizatu edo deszentralizatu gisa sailkatuko dira. Ondoren, emaile deszentralizatuetan jarriko da arreta eta haien laguntzaren bolumena, garrantzia eta lehentasunak aztertuko dira. Modu horretan, ikerketa-zentro batzuek (Pérez, 2018; Gutiérrez Goiria *et al.*, 2022) eta ELGAk berak (2018, 2019)[4] egindako analisi puntualei erregulartasuna eman nahi zaie.

Eranskin metodologikoan zehazki azaldutako ariketa horren ondorioz, hamaika herrialde emailetako estatu azpiko gobernu-mailei dagozkien 54 eragile-kode identifikatu dira. Horietatik hogeita hamazortzi eskualdeko gobernu zehatzei dagozkie, adibidez, Eusko Jaurlaritzari eta Flandriako Gobernuari, eta beste hamaseiak, aldiz, erreferentzia orokorrak dira, hala nola «udalerriak» eta «probintziako gobernuak».

**GLBko 11 herrialdetako**
**54**
**eragilek**
bideratzen dituzte GLOD funtsak

4 herrialdetako
**38**
**eragile identifikatu dira**

11 herrialdetako
**16**
**eragile orokor**

Herrialde emaile batzuek apunte agregatutan kontabilizatzen dute GLODa, eragile finantzatzaileak oro har aipatuz. Hori da, zalantzarik gabe, azterketa honetarako muga bat, ez duelako ahalbidetzen lankidetza deszentralizatuaren protagonistetan sakontzea. Praktika hori herrialde guztietan agertzen da neurriren batean, are gehiago udal-emaileak, tokian bertan

[2] Sozietate zibilarentzako eta sozietate zibilaren bidezko laguntzari buruzko urteko txostenak, CRSko «kanala» eta «lankidetza-modalitatea» eremuen ustiapenean oinarrituta daudenak (ELGA, 2020).

[3] CRSk 610 agentziari buruzko informazioa dauka. Horietatik 556 zentralizatutzat eta 54 deszentralizatutzat jo dira. Txostenarekin batera, CRSren analisian erabilitako taulak erantsi dira, Excel formatuan.

[4] Nabarmentzekoa da badaudela estatu-irismenik ez daukan lankidetza deszentralizatuari buruzko informazioa modu sistematikoan ematen duten datu-baseak. Horrelakoak dira Lankidetza Deszentralizatuaren Frantziako Atlasa (diplomatie.gouv.fr, 2023) eta Euskal Lankidetza Publikoaren Ataria (hegoa.ehu.eus, 2023). Hona hemen Espainiako lankidetza deszentralizatuari buruzko beste informazio-iturri batzuk: Info@OD datu-basea, zeinak tokiko lankidetza-funtsen jatorria gehitzen baitio GLBren CRS datu-baseari; Oxfam Intermonen «La realidad de la ayuda» txostena; eta Koordinakundearen urteko txostenak, zeinetan aztertzen baita toki-gobernuek eta gobernu autonomikoek % 0,7aren konpromisoa betetzen duten (realidadayuda.org, 2023; coordinadoraongd.org, 2023; infoaod.maec.es, 2023).

gauzatutako GLOaren modalitateak eta gutxi gorabehera % 1eko deszentralizazioa duten herrialdeak direnean.

GLOari buruzko azterketa gehienak bezala, txosten hau CRS datu-baseko zenbait eremutan oinarritzen da lankidetza deszentralizatuaren ezaugarriak zehazteko, hala nola xede-herrialdean (eta lotutako eremu geografikoan), sektorean, kanalean eta laguntza-motan. Azterketa honetan, eremuok konbinatu eta berrantolatu dira lankidetza deszentralizaturako kategoria adierazgarri batzuk sortzeko, Espainiako autonomia-erkidegoen eta udalerrien esperientziaren arabera.

Lehenik eta behin, «laguntza-mota» eremuaren balioak konbinatu egin dira laguntza deszentralizatuaren bi aldaera handi identifikatzeko. Alde batetik, GLOen artean nagusia, alegia, finantza-baliabideen benetako transferentzia herrialde garatuetatik garapen-bidean dauden herrialdeetara (nazioarteko laguntza) eta, bestetik, agentzia emailearen lurraldean bertan erabiltzen den laguntza (tokian tokiko laguntza).

Jarraian, «laguntza-mota» eremua baliatuz, tokian tokiko laguntza den GLODa zenbait kontzeptutan xehakatu da, hala nola: garapen-bidean dauden herrialdeetako ikasleen kostu egotziak, errefuxiatuei herrialde emailean geratzen diren lehen urtean harrera egiteko programak eta hezkuntza globaleko jarduerak, Dublingo Adierazpenaren zentzuan (GE, 2022), zeina garapen jasangarrirako hezkuntzarekin parekatu baitaiteke, 4. GJHko 4.7 helmugaren eremu osoan. Tokian tokiko GLODean eragile finantzatzaileen administrazio-gastuak ere barne hartu dira.

Nazioarteko GLODa, aldiz, lankidetza deszentralizatuaren eragileentzat erabilgarria den analisi bat egiteko beharrezkoak diren beste bi kategoria sortzeko xehakatu da: zuzeneko laguntza eta zeharkakoa. Zuzeneko laguntza esaten zaio estatu azpiko gobernu emaileak edo laguntza bideratzen den lurraldeko eragile batek, zeinarekin gobernu emaileak zuzenean (bitartekaririk gabe) hitz egiten baitu, zuzenean gauzatzen duenari. Zeharkako laguntza, ordea, bitartekarien bidez bideratzen dena da. GLBren estatistiketan benetan aipatutako kanalak kontuan hartuta, zeharkako laguntzari «GKE-en eta beste bitartekari batzuen bidezko laguntza» deitu diogu txosten honetan[5].

Hurrengo eskemak GLODaren kategorizazio hori erakusten du eta eranskin metodologikoan kategoria bakoitzaren definizioa zehazten da, ELGAren CRSko kontabilitate-egiturarekiko korrespondentzietan oinarrituta.

[5] Kaniak (2021) antzeko sailkapen bat egin du Flandriako, Valoniako, Eskoziako, Galesko, Kataluniako, Baden-Württembergeko eta Hanburgoko gobernuetako ordezkariekin egindako elkarrizketa-lan batean oinarrituta. Geureak bezala, Kaniaren sailkapenak lehenik eta behin kanpoko laguntza (nazioartekoa) eta barrukoa (tokian tokikoa) bereizten ditu, baina nazioarteko laguntzaren barruan beste modalitate bat gehitzen du: lankidetza eskuordetua, zuzenekoaren eta zeharkakoaren artekoa. Gainera, Kaniak «elkarrekiko ikaskuntza» eta «jardunbide egokien trukea» kategoriak gehitzen ditu, besteak beste. Horiek oso interesgarriak dira analisi kualitatiborako, baina ez datoz bat argi eta garbi ELGAk laguntza ofizialtzat jotzeko erabiltzen dituen irizpideekin eta ezin dira sartu txosten honetakoaren moduko analisi kuantitatibo batean.

1. grafikoa. GLOaren kategorizazioa txosten honetan[i]




[i] ELGAren CRSko kategoria eta kodeekiko baliokidetasunak grisez agertzen dira.

Iturria: geuk egina.

## 1.4. Proposatutako analisi kuantitatiboa

GLODa aurreko kategorizazioaren arabera sailkatzeaz gain, txosten honetan kategoria interesgarrienetako kasu adierazgarrien analisi kualitatibo bat proposatzen da. Edizio honetan, lankidetza deszentralizatuari eta haren abantaila konparatiboari buruzko nazioarteko diskurtsoarekin hobekien bat datozen lankidetza-modalitateetan ardazten da txostena. Alegia, zuzeneko lankidetzaren modalitatean jartzen da arreta. Horren barruan, bai lankidetza teknikoko ekintzak bai herrialde emaileko zein herrialde hartzaileko estatu azpiko gobernuek zuzenean gauzatutako proiektuak jasotzen dira.

Analisi kualitatibo honetarako, eranskin metodologikoan azaltzen den moduan, GLODaren datu-basean identifikatu zen zein herrialde eta eragile finantzatzailetan egon den zuzeneko lankidetza deszentralizatuko jarduera biziena. Zenbateko horiek mikrodatu-mailan xehakatu ziren zenbateko edo errepikapen handieneko ekintzak identifikatzeko eta, horrela, ezagutza ugari dakartzan zuzeneko lankidetza deszentralizatu baterako eredugarriak izan daitezkeen programa eta proiektu batzuk aurkitu ziren. Jarraian, berrikuspen dokumentalak egin dira, baita tartean dauden erakundeetako arduradunekiko elkarrizketak ere, lankidetza-eredu bakoitzaren administrazio-diseinua eta diseinu operatiboa ikertzeko eta, horrela, 3. atalean zuzeneko lankidetzaren zazpi eredu aurkeztu dira. Kasuen hautespenari eta dokumentazioari buruzko xehetasunak eranskin metodologikoan azaltzen dira.

# 2.

# LAGUNTZA DESZENTRALIZATUA ZENBAKITAN

## 2.1. GLODaren garrantzia eta eboluzioa

**2020. URTEA**

**2.703 milioi USD**
bideratu dituzte estatu azpiko gobernuek GLOra 2020. urtean

Sistema deszentralizatuak dauzkaten herrialdeetako GLOaren
**%3,3**

GLBko herrialdeetako guztizko GLOaren
**%2,0**

ELGAk eskuragarri dituen azken bost urteetako datuen arabera (2016-2020), lankidetza deszentralizatuak goranzko joera eduki du. Hurrengo grafikoan ikusten den moduan, haren bolumena urtez urte hazi da eta 2020an 2.703 milioi dolarreko maximora heldu zen, COVID-19ak nazioarteko jardueran izan zuen inpaktua gorabehera. ELGAk 2005ean egindako zenbatespenak kontuan izanik, 2020ko zenbatekoak adierazten du lankidetza deszentralizatua ia hirukoiztu dela azken hamabost urteetan.

2. grafikoa. GLO deszentralizatuaren eboluzioa, 2016-2020




Iturria: geuk egina, ELGAko datuetan oinarrituta

2020an erregistratutako zenbatekoa munduko aldebiko GLOaren % 2 baino ez da[6], baina nabarmen aldatzen da herrialde bakoitzean. Hamaika estatuk bakarrik, zeinetatik bederatzi Europakoak diren eta GLODaren % 90 baino gehiago metatzen duten, eskaintzen dute garapenerako nolabaiteko laguntza modu deszentralizatuan: Alemania, Austria, Belgika, Kanada, Espainia, Frantzia, Italia, Japonia, Portugal, Erresuma Batua eta Suitza. Sistema deszentralizatu horietan, GLODak % 3,3ko pisua dauka, baina alde garrantzitsuak daude; hain zuzen ere, Espainian laguntzaren deszentralizazioa % 36ra iristen da eta Japonian laguntza teknikoko gastu txikiak, % 1era heltzen ez direnak, egozten dira.

[6] CRSko datuen arabera, 2020an GLBko herrialdeetako guztizko GLOa 135.500 milioi USDkoa izan zen, eta GLODa, berriz, 2.703 milioi USDkoa.

## 2.2. GLODaren kategoriak

2020an egikaritutako GLODa hurrengo grafikoan xehakatzen da, 1. atalean definitutako kategoriak erabiliz. GLODaren partida nagusia tokian tokiko laguntza da eta, haren barruan, bekak eta garapen-bidean dauden herrialdeetatik datozen ikasleekin lotutako beste hezkuntza-gastu batzuen egozpenak. Tokian tokiko GLODaren bigarren partida garrantzitsuenak errefuxiatuen harrerarekin du zerikusia, eta hezkuntza globala hirugarren tokian dago, askoz ere zenbateko txikiagoarekin.

Tokian tokiko GLODaren barruan, eragile emaileek beren laguntzak kudeatzeko egiten dituzten administrazio-gastuak barne hartzen dira. Gastuok GLODaren % 1,4 dira, emaile zentralizatuen artean ateratzen dena baino askoz ere ehuneko txikiagoa.

Bestalde, 2020an garapen-bidean dauden herrialdeetara benetan transferitutako GLOD gehiena GKE-en eta beste bitartekari batzuen proiektuak, hala nola Nazio Batuetako agentzienak, egiteko izan zen. Askoz ere neurri txikiagoan, GLODa zuzeneko lankidetzako ekintzetara bideratu zen, jarraian azaltzen den moduan.

3. grafikoa. GLODaren banaketa, 2020. urtea (milioi USD)




Iturria: geuk egina, ELGAko datuetan oinarrituta

Aurreko grafikotik bi datu azpimarratu daitezke. Lehenik eta behin, tokian tokiko gastuek pisu handia daukate GLODaren barruan. Are gehiago, hurrengo grafikoan (2016-2020ko aldiari buruzkoan) azaltzen den moduan, laguntza-kategoria horrek goranzko joera izan du kopuru absolututan eta gutxi gorabehera % 75era heldu da; ehuneko hori 2005ekoa baino askoz ere handiagoa da, orduan ELGAk % 50 zela zenbatesten zuen eta. Hurrengo atalean ikusiko den moduan, Alemaniako *Länder*rek eragin handia dute datuotan.

4. grafikoa. GLO deszentralizatuaren eboluzioa, kategoriaka (M.USD)




Iturria: geuk egina, ELGAko datuetan oinarrituta

Bigarrenik, nabarmentzekoa da zuzeneko lankidetzak pisu txikia duela GLODean. Zuzeneko lankidetza deszentralizatuak 171 milioi dolar jaso zituen 2020an; beraz, nazioarteko GLODaren % 27 bakarrik eta GLOD guztiaren % 6,3 izan zen. Datu hori eta nazioarteko komunitatean nagusi den diskurtsoa guztiz bestelakoak dira. Izan ere, diskurtso horren arabera, mota horretako lankidetzaren balio erantsia 2030 Agendarako esanguratsuak diren toki-politikei buruzko ezagutza da, hain zuzen ere zuzeneko lankidetzako modalitateek ahalbidetzen dutelako gobernu emaileek funtsez ez ezik ezagutzaz ere hornitzea. Zehazki, laguntza teknikoa (tokiko gobernuek beren langileak eta beste aditu batzuk ekartzea) 71 milioi dolarrekoa izan zen 2020an, GLOD guztiaren % 3 baino gutxiago.

## 2.2. Lankidetza deszentralizatuaren eragileak

Bere izaeragatik, lankidetza deszentralizatua eragile finantzatzaile ugarirentzat irekitako eremua da eta ezinezkoa da eragile guztiak GLOari buruzko estatistiken bitartez ezagutzea, 1. atalean aipatutako mugengatik. Muga horiek gorabehera, ELGAk ondo identifikatutako estatu azpiko hogeita hamazortzi gobernuren laguntza-ekintzak[7] erregistratu ditu. Erregistroek erakusten dutenez, sistema deszentralizatu baten berezko zatikatzean, aldebiko laguntzarako ELGAko GLBn dauden gobernu zentral batzuek[8] baino aurrekontu handiagoak dauzkaten eragile batzuk agertzen dira: Flandria (GLODaren rankingeko lehenengo tokian), Euskadi, Katalunia, Valentziako Erkidegoa eta Andaluzia. Espainiako autonomia-erkidegoek GLODaren rankinga betetzen dute.

[7] 2016tik 2020ra arteko urteetarako, lankidetza deszentralizatuko 70.649 ekintza erregistratu dira, hots, GLODeko 14.100 ekintza urtean batez beste. Transakzio bakoitzaren batez besteko zenbatekoa 0,16 milioi USD da.

[8] Islandia (46 milioi USD), Eslovakia (37 milioi USD) eta Eslovenia (31 milioi USD).

5. grafikoa. Lankidetza-eragile deszentralizatuak eta GLODaren ordainketa, 2020. urtea (milioi USD)




Iturria: geuk egina, ELGAko datuetan oinarrituta

GLOD guztia kontuan hartuta, oro har estatu-mailan zenbatutako laguntzak barne, GLODaren hornitzaile nagusiak Alemaniako *länder*rak dira (1.757 milioi[9] dolar 2020an). Hurrengoak Espainiako autonomia-erkidegoak eta toki-erakundeak (369 milioi dolar), Kanadako probintziak eta Frantziako lurralde-kolektibitateak (170 milioi dolar baino gehiago bakoitzak) dira.

6. grafikoa. Emaile deszentralizatuen rankinga, GLODerako funtsak, milioi USDtan. 2020.




Iturria: geuk egina, ELGAko datuetan oinarrituta

[9] Alemaniak 2020an GLODera bideratu dituen 1.757 milioi dolarretatik, 60,71 milioi bakarrik bideratu dituzte CRSn argiro identifikatutako eragileek. Gainerako laguntza (% 99) «*federal states and local governments*» eragile orokorrari esleituta dago. Hori dela eta, eragile orokorrak analisitik kanpo utzita, Alemaniaren pisua txikiagoa da.

GLODa estatu bakoitzeko aldebiko GLOaren guztizko zenbatekoarekin erlazionatzen bada, emaileen rankinga nabarmen aldatzen da. Espainiako autonomia-erkidegoak eta toki-erakundeak dira laguntzarako estatu-sisteman pisu handiena daukaten eragileak (estatu osoko aldebiko GLOaren % 36) eta, ondoren, Belgikako eskualdeak (% 9) eta Alemaniako *länder*rak (% 6).

7. grafikoa. Emaile deszentralizatuen rankinga, GLODa aldebiko GLOari dagokionez, 2020.




Iturria: geuk egina, ELGAko datuetan oinarrituta

Azkenik, lankidetza deszentralizatua ulertzeko garrantzitsua den beste ranking batek 1. atalean egindako bereizketarekin, nazioarteko laguntzaren eta tokian bertan egikaritutako laguntzaren artekoarekin, dauka zerikusia. Hurrengo grafikoan ikusten den moduan, Alemanian, Austrian eta Kanadan GLODa tokian bertan gauzatzen da nagusiki, baina Italian, Erresuma Batuan, Belgikan eta Espainian, berriz, GLODa garapen-bidean dauden herrialdeetara benetan transferitutako finantzaketan datza.

8. grafikoa. GLODaren kategorien banaketa, herrialdeka (batez besteko balioak, 2016-2020)




Iturria: geuk egina, ELGAko datuetan oinarrituta

## 2.4. Lankidetza deszentralizatuaren profilak[10]

Atal honetan, GLODaren modalitateetan sakontzen da, ELGAko emaile deszentralizatu bakoitza aztertuz GLOari buruzko datu-baseko 2016-2020ko datuen arabera[11]. Emaileak 2020an zuten deszentralizazio-mailaren[12] arabera ordenatu dira, Espainiatik hasita (% 36) eta Japonian amaituta (% 0,01).

Herrialde bakoitzerako, GLODaren bolumena (milioi dolarretan), herrialdeko aldebiko GLOari dagokionez duen pisua eta azken bost urteetan izan duen bilakaera azaltzen dira. Aldi horretako batez besteko datuak txosten honetan definitutako modalitateen arabera xehakatzen dira, ELGAren datu-baseetan jasotako beste aldagai batzuekin batera, hala nola laguntzen xede geografiko edo sektorialarekin.

Baliteke lankidetza deszentralizatua estatuka aurkezteak kontraesankorra iruditzea eta hein batean protagonistei ikusgaitasuna kentzea. Hala ere, beharrezko ariketa da —GLODaren partida askotan xehetasunak falta direlako—, baita praktikoa ere —emaile deszentralizatuek antzeko lankidetza-profilak garatzen dituztelako estatu bakoitzaren barruan eta beren eskumen-esparruaren eta ibilbide historikoaren arabera—.

GLBren datu-basean informazio nahikoa daukaten herrialdeei dagokienez, hamar eragile finantzatzaile nagusien rankinga ere aurkezten da, baita lehen hiru emaileen profil zehatzagoa ere.

[10] Fitxen edukia eta erabilitako irizpideak I. eranskinean (metodologia) azaltzen dira zehazkiago.

[11] Txosten honetako beste zerrenda batzuetan badagoen arren, Txekiako Errepublika aurkezpenetik kanpo utzi da, 2020an ez zuelako partidarik egotzi GLOD gisa.

[12] GLODaren pisu erlatiboa aldebiko GLOari dagokionez.

# ESPAINIA

HERRIALDEAREN FITXA 2020

**369** milioi USD

garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren

**%36**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren

**%11**

hezkuntza globalerako

«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren

**%72**

GKEentzat (eta beste bazkide batzuentzat)

«nazioartekoa» kategorian




HARTZAILEA

**%34**

Amerikara bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %34 | AFRIKA %15 | MENA %10 | ASIA ETA OZEANO BAREA %2 | EUROPA %2 |
|---|---|---|---|---|
| Guatemala | Senegal | Maroko | India | ZEHAZTU GABE %37 |
| Peru | Mozambike | Zisjordania eta Gazako zerrenda | Txina | |
| El Salvador | Mali | Libano | Kanbodia | |

SEKTOREA

**%21**

Gobernura eta sozietate zibilera bideratuta

Zerbitzu eta azpiegitura sozialak




% 18 HEZKUNTZA

% 20 OSASUNA

% 10 URA ETA SANEAMENDUA

% 47 GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA

% 4 BESTE BATZUK

## NONDIK DATORREN

**%66** AUTONOMIA-ERKIDEGOAK

**%31** UDALAK

**%3** UNIBERTSITATEAK

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Euskadi | 54 | %15 |
| Katalunia | 52 | %14 |
| Valentziako Erk. | 37 | %10 |
| Andaluzia | 35 | %10 |
| Nafarroa | 15 | % 4 |
| Extremadura | 10 | % 3 |
| Galizia | 8 | % 2 |
| Balear uharteak | 6 | % 2 |
| Madril | 5 | % 1 |
| Gaztela eta Leon | 5 | % 1 |

Espainiako GLODaren % 66 (unibertsitateek bideratutako GLOa barne) autonomia-erkidegoek ematen dute, eta % 29, berriz, toki-erakundeek.

## EUSKADI

Kategoriaka




kategoria
Nazioartekoa




kategoria
Tokian bertakoa




**%51**
Amerikara bideratuta
Hartzaile nagusiak Peru, Guatemala eta Kolonbia dira

**%50**
Gobernuaren eta sozietate zibilaren sektorera bideratuta

**%90**
GKEen bitartez bideratuta

**%80**
Proiektuen bidez ezarrita

## KATALUNIA

Kategoriaka




kategoria
Nazioartekoa




kategoria
Tokian bertakoa




**% 57**
Zehaztu gabeko herrialdeetara bideratuta
ISGlobal, Hezkuntza Globala eta errefuxiatuentzako laguntza barne

**% 51**
Gobernuaren eta sozietate zibilaren sektorera bideratuta

**% 46**
Gobernu emailearen bitartez bideratuta

**% 31**
Tokian bertan egindako gastuen bidez ezarrita

## VALENTZIAKO ERK.

Kategoriaka




kategoria
Nazioartekoa




kategoria
Tokian bertakoa




**%54**
Amerikara bideratuta
Hartzaile nagusiak El Salvador, Bolivia eta Peru dira

**%58**
Gobernuaren eta sozietate zibilaren sektorera bideratuta

**%82**
GKEen bitartez bideratuta

**%87**
Proiektuen bidez ezarrita

# BELGIKA

HERRIALDEAREN FITXA 2020

**107** milioi USD

garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren

**%9**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

### KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren

**%2**

hezkuntza globalerako

«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren

**%50**

GKEentzat (eta beste bazkide batzuentzat)

«nazioartekoa» kategorian







### HARTZAILEA

**%44**

Afrikara bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %4 | AFRIKA %44 | MENA %4 | ASIA ETA OZEANO BAREA %4 | EUROPA %1 |
|---|---|---|---|---|
| Haiti | Malawi | Maroko | India | ZEHAZTU GABE %44 |
| Ekuador | Mozambike | Tunisia | Vietnam | |
| Guatemala | Hegoafrika | Egipto | Txina | |

### SEKTOREA

**%28**

osasunera bideratuta

Zerbitzu eta azpiegitura sozialak




% 5 HEZKUNTZA

% 77 OSASUNA

% 3 URA ETA SANEAMENDUA

% 7 GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA

% 7 BESTE BATZUK

### NONDIK DATORREN

%95 ESKUALDEAK

%5 PROBINTZIAK ETA UDALAK

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Flandria | 74 | % 70 |
| Valonia | 26 | % 24 |
| Bruselako eskualdea | 1 | %1,2 |

Flandriako eskualdea da lankidetza deszentralizatu guztiaren eragile nagusia.
Belgikako GLO deszentralizaturen % 95 eskualdeko gobernuetatik dator eta gainerako % 5, berriz, probintzietatik eta udaletatik.

## FLANDRIA

Kategoriaka




kategoria
Nazioartekoa




kategoria
Tokian bertakoa




**%51**
Afrikara bideratuta
Hartzaile nagusiak Mozambike, Hegoafrika eta Malawi dira

**%45**
Osasunaren sektorera bideratuta

**%49**
Gobernu emailearen bitartez bideratuta

**%44**
Proiektuen bidez ezarrita

## VALONIA

Kategoriaka




kategoria
Nazioartekoa




kategoria
Tokian bertakoa




**%55**
Afrikara bideratuta
Hartzaile nagusiak Kongoko Errepublika Demokratikoa, Kenya eta Benin dira

**%51**
Sektore anitzeko sektorera bideratuta

**%61**
Gobernu emailearen bitartez bideratuta

**%84**
Proiektuen bidez ezarrita

## BRUSELAKO ESKUALDEA

Kategoriaka




kategoria
Nazioartekoa




kategoria
Tokian bertakoa




**%55**
Afrikara bideratuta
Hartzaile bakarra Kongoko Errepublika Demokratikoa da

**%26**
Uraren eta saneamenduaren sektorera bideratuta

**%87**
GKEen bitartez bideratuta

**%80**
Proiektuen bidez ezarrita

# ALEMANIA

HERRIALDEAREN FITXA
2020

**1.757** milioi USD
garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren
**%6**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

### KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren
**%96**
ikasleentzat
«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren
**%2**
zuzeneko lankidetzarako
«nazioartekoa» kategorian







### HARTZAILEA

**%46**
Asiara eta Ozeano Barera bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %8 | AFRIKA %9 | MENA %25 | ASIA ETA OZEANO BAREA %46 | EUROPA %11 |
|---|---|---|---|---|
| Brasil | Kamerun | Arabiar Errepublika | Txina | ZEHAZTU GABE %2 |
| Mexiko | Nigeria | Iran | India | |
| Kolonbia | Ghana | Tunisia | Pakistan | |

### SEKTOREA

**%97**
hezkuntzara bideratuta

Zerbitzu eta azpiegitura sozialak




| | |
|---|---|
| %99 | HEZKUNTZA |
| % 1 | OSASUNA |
| %0,1 | URA ETA SANEAMENDUA |
| %0,1 | GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA |
| %0,1 | BESTE BATZUK |

### NONDIK DATORREN

**%99** LANDERRAK

**%1** PROBINTZIAK ETA UDALAK

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Bavaria | 17 | %0,94 |
| Ipar Renania-Westfalia | 13 | %0,71 |
| Hanburgo | 11 | %0,63 |
| Baden-Württemberg | 6 | %0,32 |
| Hessen | 3 | %0,19 |
| Berlin | 2 | %0,12 |
| Renania-Palatinatua | 2 | %0,12 |
| Schleswig-Holstein | 2 | %0,09 |
| Saxonia | 1 | %0,07 |
| Saxonia Beherea | 1 | %0,05 |

Alemaniako laguntza deszentralizatuaren % 96k ez dauka xehakapen zehatzagorik «Estatu federalak eta toki-gobernuak» eremu orokorrean (1.697 milioi dolar 2020an)

## BAVARIA




**%52**
Afrikara bideratuta
Hartzaile nagusiak Hegoafrika, Etiopia eta Senegal dira

**%79**
Hezkuntzaren sektorera bideratuta

**%59**
Gobernu emailearen bitartez bideratuta

**%50**
IProiektuen bidez ezarrita

## IPAR RENANIA-WESTFALIA




**%14**
Afrikara bideratuta
Hartzaile nagusiak Ghana, Togo eta Nigeria dira

**%51**
Sektore anitzeko sektorera bideratuta

**%84**
Gobernu emailearen bitartez bideratuta

**%43**
Tokian bertan egindako gastuen bidez ezarrita

## HANBURGO




**%2**
Asiara eta Ozeano Barera bideratuta
Hartzaile nagusiak India, Txina eta Vietnam dira

**%64**
Osasunaren sektorera bideratuta

**%93**
Gobernu emailearen bitartez bideratuta

**%88**
Oinarrizko finantzaketaren bidez ezarrita

# KANADA

HERRIALDEAREN FITXA
2020

**177** milioi USD
garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren
**%4**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

### KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren
**%72**
errefuxiatuentzat
«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren
**%8**
GKEentzat (eta beste bazkide batzuentzat)
«nazioartekoa» kategorian




### HARTZAILEA

**%15**
Asiara eta Ozeano Barera bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %3 | AFRIKA %5 | MENA %1 | ASIA ETA OZEANO BAREA %15 | EUROPA %0 |
|---|---|---|---|---|
| Amerika, eskualdeak | Afrika, eskualdeak | Libano | Asia, eskualdeak | ZEHAZTU GABE %77 |
| Haiti | Senegal | Maroko | Txina | |
| Peru | Burkina Faso | Iran | India | |

### SEKTOREA

**%73**
laguntza humanitariora bideratuta




- % 13 HEZKUNTZA
- % 19 OSASUNA
- % 8 URA ETA SANEAMENDUA
- %44 GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA
- % 16 BESTE BATZUK

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Kanadako probintziak eta udalerriak | 177 | % 100 |

GLBren estatistikek ez dituzte gehiago xehakatzen Kanadako agentziak

# AUSTRIA

HERRIALDEAREN FITXA 2020

**23** milioi USD

garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren

**%3**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

### KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren

**%90**

errefuxiatuentzat

«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren

**%7**

GKEentzat (eta beste bazkide batzuentzat)

«nazioartekoa» kategorian







### HARTZAILEA

**%3**

Afrikara bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %1 | AFRIKA %3 | MENA %1 | ASIA ETA OZEANO BAREA %1 | EUROPA %2 |
|---|---|---|---|---|
| Brasil | Uganda | Arabiar Errepublika | India | ZEHAZTU GABE %92 |
| Nikaragua | Tanzania | Irak | Nepal | |
| Guatemala | Kenya | Libano | Asia, eskualdeak | |

### SEKTOREA

**%92**

laguntza humanitariora bideratuta




%35 HEZKUNTZA

%25 OSASUNA

% 8 URA ETA SANEAMENDUA

% 15 GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA

% 17 BESTE BATZUK

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Austriako probintziak | 23 | %100 |

GLBren estatistikek ez dituzte gehiago xehakatzen Austriako agentziak

# SUITZA

HERRIALDEAREN FITXA 2020

**67** milioi USD

garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren

**%2**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

### KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren

**%13**

errefuxiatuentzat

«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren

**%73**

GKEentzat (eta beste bazkide batzuentzat)

«nazioartekoa» kategorian







### HARTZAILEA

**%30**

Afrikara bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %13 | AFRIKA %30 | MENA %5 | ASIA ETA OZEANO BAREA %12 | EUROPA %4 |
|---|---|---|---|---|
| Kolonbia | Burkina Faso | Arabiar Errepublika | Bangladesh | ZEHAZTU GABE %37 |
| Bolivia | Saharako hegoaldea | Libano | Nepal | |
| Haiti | Madagaskar | Irak | India | |

### SEKTOREA

**%13**

hezkuntzara bideratuta

Zerbitzu eta azpiegitura sozialak




| | |
|---|---|
| %35 | HEZKUNTZA |
| %26 | OSASUNA |
| % 10 | URA ETA SANEAMENDUA |
| %20 | GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA |
| % 9 | BESTE BATZUK |

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Suitzako kantonamenduak | 67 | %100 |

GLBren estatistikek ez dituzte gehiago xehakatzen Suitzako agentziak

# FRANTZIA

HERRIALDEAREN FITXA
2020

**174** milioi USD
garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren
**%1,2**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren
**%45**
errefuxiatuentzat
«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren
**%23**
zuzeneko lankidetzarako
«nazioartekoa» kategorian




HARTZAILEA

**%34**
Afrikara bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %3 | AFRIKA %34 | MENA %6 | ASIA ETA OZEANO BAREA %7 | EUROPA %2 |
|---|---|---|---|---|
| Haiti | Afrika, eskualdeak | Maroko | Vietnam | ZEHAZTU GABE %47 |
| Kuba | Madagaskar | Libano | Kanbodia | |
| Mexiko | Senegal | Zisjordania eta Gazako zerrenda | Armenia | |

SEKTOREA

**%48**
laguntza humanitariora bideratutato




| | |
|---|---|
| % 9 | HEZKUNTZA |
| %44 | OSASUNA |
| % 31 | URA ETA SANEAMENDUA |
| % 13 | GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA |
| % 3 | BESTE BATZUK |

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Frantziako Kanpo Arazoetako Ministerioa | 139 | %80 |
| Sail artekoa | 34 | %20 |

GLBren estatistikek ez dituzte gehiago xehakatzen Frantziako agentziak

# PORTUGAL

HERRIALDEAREN FITXA
2020

**2** milioi USD
garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren
**%0,6**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren
**%44**
errefuxiatuentzat
«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren
**%28**
zuzeneko lankidetzarako
«nazioartekoa» kategorian







HARTZAILEA

**%52**
Afrikara bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %0,2 | AFRIKA %52 | MENA %1 | ASIA ETA OZEANO BAREA %0,3 | EUROPA %0,1 |
|---|---|---|---|---|
| Brasil | Mozambike | Zisjordania eta Gazako zerrenda | India | ZEHAZTU GABE %47 |
| Mexiko | Sao Tome eta Principe | Ekialde Erdikoa | Nepal | |
| Venezuela | Cabo Verde | Libano | Ekialdeko Timor | |

SEKTOREA

**%59**
laguntza humanitariora bideratuta




| | |
|---|---|
| %38 | HEZKUNTZA |
| %38 | OSASUNA |
| % 1 | URA ETA SANEAMENDUA |
| % 6 | GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA |
| % 17 | BESTE BATZUK |

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Portugalgo udalak | 2 | %100 |

GLBren estatistikek ez dituzte gehiago xehakatzen Portugalgo agentziak

# ITALIA

HERRIALDEAREN FITXA
2020

**7** milioi USD
garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren
**%0,5**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

### KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren
**%3**
hezkuntza globalerako
«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren
**%80**
GKEentzat (eta beste bazkide batzuentzat)
«nazioartekoa» kategorian




### HARTZAILEA

**%46**
Afrikara bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %14 | AFRIKA %46 | MENA %13 | ASIA ETA OZEANO BAREA %11 | EUROPA %6 |
|---|---|---|---|---|
| Ekuador | Mozambike | Zisjordania eta Gazako zerrenda | Nepal | ZEHAZTU GABE %10 |
| Brasil | Tanzania | Tunisia | India | |
| Bolivia | Kenya | Arabiar Errepublika | Myanmar | |

### SEKTOREA

**%20**
hezkuntzara bideratuta

Zerbitzu eta azpiegitura sozialak




%33 HEZKUNTZA
%32 OSASUNA
%12 URA ETA SANEAMENDUA
% 9 GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA
%14 BESTE BATZUK

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Italiako probintziak | 7 | %100 |

GLBren estatistikek ez dituzte gehiago xehakatzen Italiako agentziak

# ERRESUMA BATUA

HERRIALDEAREN FITXA
2020

**19** milioi USD
garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren
**%0,2**







## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren
**%3,6**
hezkuntza globalerako
«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren
**%74**
GKEentzat (eta beste bazkide batzuentzat)
«nazioartekoa» kategorian







HARTZAILEA

**%72**
Afrikara bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %0,3 | AFRIKA %72 | MENA %1 | ASIA ETA OZEANO BAREA %5 | EUROPA – |
|---|---|---|---|---|
| Kolonbia | Malawi | Yemen | Pakistan | |
| | Ruanda | Libano | India | |
| | Zambia | Arabiar Errepublika | Bangladesh | |

ZEHAZTU GABE
%22

SEKTOREA

**%14**
ur eta saneamendura bideratuta
Zerbitzu eta azpiegitura sozialak




## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Eskozia | 16 | % 83 |
| Gales | 3 | % 17 |

GLBren estatistikek ez dituzte gehiago xehakatzen Erresuma Batuko agentziak

# JAPONIA

HERRIALDEAREN FITXA
2020

**2** milioi USD
garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuan (GLODean) 2020an

Aldebiko GLOaren
**%0,01**

Kategoriaka




GLODaren eboluzioa (milioi USDtan)




## NOLAKOA DEN LAGUNTZA

KATEGORIA

GLODaren guztizkoaren
**%22**
ikasleentzat
«tokian bertakoa» kategorian

GLODaren guztizkoaren
**%42**
GKEentzat (eta beste bazkide batzuentzat)
«nazioartekoa» kategorian







HARTZAILEA

**%57**
Asiara eta Ozeano Barera bideratuta

HERRIALDE HARTZAILE NAGUSIAK

| AMERIKA %21 | AFRIKA %3 | MENA %0,1 | ASIA ETA OZEANO BAREA %57 | EUROPA %0,2 |
|---|---|---|---|---|
| Brasil | Malawi | Jordania | Asia, eskualdeak | ZEHAZTU GABE %19 |
| Argentina | Benin | | Vietnam | |
| Paraguai | Lesotho | | Txina | |

SEKTOREA

**%30**
hezkuntzara bideratuta

Zerbitzu eta azpiegitura sozialak




| | |
|---|---|
| %64 | HEZKUNTZA |
| % 10 | OSASUNA |
| % 17 | URA ETA SANEAMENDUA |
| % 5 | GOBERNUA ETA SOZIETATE ZIBILA |
| % 4 | BESTE BATZUK |

## ERAGILE NAGUSIAK

| | M USD | % |
|---|---|---|
| Japoniako prefekturak | 1 | % 64 |
| Japoniako udalak | 1 | % 36 |

GLBren estatistikek ez dituzte gehiago xehakatzen Japoniako agentziak

# 3.

# ZUZENEKO LANKIDETZA DESZENTRALIZATUA

## KASU-AZTERKETA

1. KASUA

# Frantziako udalerrien laguntza teknikoa

Frantziako udalerriek lankidetza teknikoaren hedapen nabarmen samarra egiten dute Frantziako Europako eta Kanpo Arazoetako Ministerioak ematen dizkien azpiegitura estrategikoari eta antolaketa-azpiegiturari esker.

## Funtsezko datuak

- Frantziak 35 milioi dolar bideratzen ditu urtean zuzeneko laguntza deszentralizatura.
- % 71, hots, 24 milioi dolar, lankidetza teknikorako da; beraz, lankidetza tekniko deszentralizatuaren lehen hornitzailea da.
- Haren lankidetza teknikoaren sektore nagusia ura da (funtsen % 20) eta eskualde nagusia, berriz, Afrika (% 47).
- Mota horretako laguntza teknikoetara bideratutako urteko funtsak, uraren sektorean, bikoiztu egin dira 2016tik 2020ra bitartean, urteko 3 milioi dolarretik 6 milioi dolarrera pasatu dira eta.
- Gaur egun, Frantziako 4.762 lurralde-agintaritzak egiten dituzte lankidetza-jarduketak, 138 herrialdetako kontrako 3.031 alderdirekin.

## Testuingurua

Frantzian, lankidetza deszentralizatua lurralde-kolektibitateen kanpo-ekintzarekin (AECTarekin) parekatzen da. Ekintza hori Lurralde Kolektibitateen Kanpo Ekintzarako Ordezkaritzak (DAECTk) zuzentzen eta babesten du, Europako eta Kanpo Arazoetako Ministerioko Eragin Diplomaziaren Zuzendaritzaren bidez. DAECTk AECTaren ekintzetarako aholkuak, babesa, sustapena eta lagundutako finantzaketa ematen ditu eta Lankidetza Deszentralizatuaren Batzorde Nazionala koordinatzen du.

Lankidetza Deszentralizatuaren Batzorde Nazionala 1992an sortu zen eta Frantziako toki-agintaritzen eta ministerioaren arteko elkarrizketarako foroa da. Halaber, toki-agintaritzak ordezkatzen dituzten elkarte nazionalak eta estatuko administrazio nagusiak biltzen ditu. Urtean bitan elkartzen da, helburu komunak eta lehentasunezko sektoreak ezartzeko.

Frantziako laguntza deszentralizatuta oso lotuta dago uraren sektorearekin. Izan ere, Frantziako udalerriek eta Frantziako sei agentzia handik aukera daukate uraren eta saneamenduaren tasen bitartez bildutakoaren % 1 nazioarteko lankidetzara bideratzeko.

## Zuzeneko lankidetzako eredua

AECTak Frantziako eta Hegoko agintaritzak biltzen ditu, toki-ekintza publikoaren eremu guztietan lankidetza-proiektuak egiteko. Toki-erakundeak senidetuta egon daitezke, lankidetza-akordio bat eduki dezakete edo proiektu batean soilik elkarlanean aritu daitezke, lankidetza hori baldintzatzen duen dokumentu formalik gabe.

Ministerioak atzerriko toki-agintaritzekin harremanetan jartzeko tresna eta baliabide batzuk jartzen ditu Frantziako toki-agintaritzen eskura. Garrantzitsuenak proiektu-deialdiak, elkarketa-bekak eta EXPE-CT ziurtagiria (toki-agintaritzen esperientziaren ziurtagiria) dira. Gainera, lankidetza deszentralizaturako gida operatibo bat jartzen da erakundeen eskura, baita *Lankidetza deszentralizatuaren atlasa* ere, zeinak barne hartzen baitu laguntza teknikoko eskariak eta eskaintzak harremanetan jartzeko sistema bat.

### Ur-baliabideen babesa Bangangtén (Kamerun)

Programak «Bangangtéko komunako uraren eta saneamenduaren sektoreetako proiektuen kudeaketa jasangarria (MODEAB)» du izena eta haren helburu nagusia da toki-agintaritzek herritarrei ematen dizkieten toki-zerbitzu publikoak hobetzea eta herritarrak ahalduntzea uraren baliabidearekin lotutako erronkei aurre egin diezaieten, gero eta baliabide eskasagoa da-eta klima-aldaketaren ondorioz. Proiektu horretan, Bangangté udalerria da erakunde sustatzailea, proiektuaren helburua, egutegia eta aurrekontua zehazteaz arduratzen dena. Funtsak Alkate Frankofonoen Nazioarteko Elkartetik (AIMFtik) datoz eta Veolia fundazioa, Parisko Aglomerazioko Uraren Sail Arteko Sindikatua (SIAAP) eta Sena-Normandiako Uraren Agentzia (AESN) laguntzaile tekniko eta finantzarioak dira. Tokiko GKE bat, Environnement Recherche Action (ERA)-Cameroun, arduratzen da herritarren parte-hartzeaz eta sentsibilizazioaz.

### Uraren eta Saneamenduaren Arloko Garapenerako Plan Komunala egiteko laguntza Bingon (Burkina Faso)

Proiektua 2017an hasi zen eta, bertan, Frantziako Luchon herria Burkina Fasoko Bingoko Udalarekin elkarlanean aritzen da, Uraren eta Saneamenduaren Arloko Garapenerako Plan Komunala (PCDEA, frantsesezko siglengatik) prestatzeko azterketa bat egiteko helburuarekin. Programa-tresna horri esker, edateko uretarako eta saneamendurako sarbidearen arloan inbertitzeko eta hiriaren gobernantzaren jarraipena egiteko programa bat eraiki da, 2017-2020rako Udal Garapen Planari laguntzeko. Proiektuak Luchongo eta Bingoko gazteak truke eta ekintza kulturalen bidez garatzeko hezkuntza-ekintzak ere barne hartu zituen. Horretarako, Bingoko kargudun elektu eta herritarrekin eta Luchongo kargu elektu eta herritarrekin trukeak egin ziren, misio gurutzatu moduan.

**INFORMAZIO GEHIAGO**

Lurralde-kolektibitateen kanpo-ekintza (AECTa) | Lankidetza deszentralizaturako gida operatiboa | Lankidetza Deszentralizatuaren Frantziako Atlasa

2. KASUA

# Flandriako Gobernuaren zuzeneko lankidetza Afrikako gobernuekin

Flandriak bost alderditan ardazten du bere kanpo-politika, eta haien artean garapenerako lankidetza dago. Flandriako lankidetza herrialde bazkideekiko akordio-kopuru mugatu baten ezarpenean eta espezializazio sektorialean oinarritzen da, metaketa estrategikoa lortzeko eta helmugan gobernu-erakundeekiko harremanak sortzeko.

## Funtsezko datuak

- Flandriak GLODerako munduko aurrekonturik handiena eduki zuen 2020an.
- Aurrekontu horren % 51 zuzeneko lankidetza gisa erregistratzen da eta % 6 xede-herrialdeetako gobernuen bitartez zuzenean bideratzen da.
- Zuzeneko lankidetzaren hartzaile nagusiak Mozambike (% 12) eta Hegoafrika (% 9) dira.

## Testuingurua

Flandriak kanpo-ekintzako eskumen garrantzitsuak dauzka, besteak beste, ekintza diplomatikoa, merkataritzaren sustapena, harreman kultural, turistiko eta zientifikoak, garapenerako lankidetza eta munduko giza eskubideen, bakearen eta segurtasunaren defentsa. Flandriako lankidetza Flandriako Kantzilertzatik eta Kanpo Arazoetako Ministeriotik kudeatzen da, kanpo-ekintza guztia bezala.

Garapenerako lankidetzaren arloan, Flandriako eskualdearen inbertsioa egonkor mantendu da 2015etik. Haren foku tematikoa osasuna, nekazaritza jasangarria eta klima-aldaketaren aurkako borroka da, eta haren foku geografikoa, berriz, Hegoaldeko Afrika.

Flandriak herrialde bazkideen kopuru mugatu batekin sinatzen ditu akordioak eta herrialde horietan kontzentratzen du bere GLOa. Halaber, herrialdeen beharrak analizatzen ditu espezializazio-sektoreen kopurua ere mugatzeko. Hori guztia herrialde bakoitzerako urte anitzeko lankidetza-plan batean zehazten da. Flandriak lankidetzari buruz duen ikuspegiak balorazio ona jaso zuen ELGAren 2018ko azterketan, espezializazio tematiko eta geografiko horrengatik.

## Zuzeneko lankidetzako eredua

Flandriako lankidetza deszentralizatuaren ikuspegia, paradoxikoki, herrialde hartzaileko gobernu zentralarekiko elkarrizketa zuzenean oinarrituta dago. Metaketa geografiko eta sektorialaren ikuspegiari esker eta gobernu hartzaileekin esparru-akordioak sinatzea ahalbidetzen duen lan diplomatikoari esker egin daiteke horrela. Akordio horietan bi laguntza-modalitate handi aurreikusten dira: zuzeneko lankidetza eta zeharkakoa.

Flandriako lankidetzaren herrialde bazkideak Malawi, Mozambike, Hegoafrika eta Maroko dira. Herrialde bakoitzerako ikuspegi tematiko bat aplikatzen da, behar eta erroka nagusien analisi haztatuan oinarritua. Malawin, ikuspegia nekazaritzan eta elikadura-segurtasunean ardazten da. Mozambikerekiko lankidetzak osasuna jorratzen du. Hegoafrikan eta —2022tik aurrera— Marokon, klima-aldaketarako egokitzapenean, enpleguaren sorketan eta ekonomia berdean jartzen da arreta nagusia.

Flandriako lehentasun sektorialak zehazteko, urte anitzeko estrategia bakoitzeko plangintza-misioak egiten dira, herrialde hartzaileko gobernu zentralak kudeatuak. Horri esker, Flandriak loturak sor ditzake bertako gobernu-erakundeekin, estatukoak, eskualdekoak zein tokikoak izan. Lotura horiek esperientzien trukea eta gaitasunen indartzea sustatzen dituzte.

### Sexu-osasuna Mozambiken

Flandriako Gobernuaren eta Mozambikeko Ugalketa Osasunaren Nazioarteko Zentroaren arteko lankidetzaren helburua da nerabeen (10 urtetik 18 urtera arteko neska-mutilen) osasuna, sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak hobetzea. Nerabeen haurdunaldien, abortu arriskutsuen eta GIBagatiko infekzio eta STI berrien kopurua murriztean ardazten da, baita genero-indarkeria murriztean ere. Proiektuaren kudeaketa eta betearazpena Mozambikeko Ugalketa Osasunaren Nazioarteko Zentroaren erantzukizuna da. Zentroak gobernuarekiko elkarlan estuan dihardu maila guztietan (nazionala, probintziala, barrutikoa, zerbitzu-prestaziokoa), batez ere osasunaren eta hezkuntzaren sektoreekin.

### Nekazaritza eta elikadura-segurtasuna Mzimban (Malawi)

Flandria Mzimbako Nekazaritza Bulegoarekin, Malawiko Nekazaritzako eta Elikadura Segurtasuneko Ministerioaren lurralde-ordezkaritzarekin, elkarlanean dihardu nekazaritzaren ekoizpenaren komertzializazioaren arloan bere eragiketak, eginkizunak eta zerbitzu-prestazioa hobetzeko helburuarekin. Mzimbako Nekazaritza Bulegoak jarri zuen abian proiektua, Flandriako Gobernuaren finantza-laguntzarekin. Gobernuak, gainera, aurretiazko azterketetan, jarraipenean eta emaitzen ebaluazioan esku hartu zuen.

**INFORMAZIO GEHIAGO**

Flanders Chancellery & Foreign Office | Flanders Development Cooperation | ODA project database | Flanders Policy Framework

3. KASUA

# Valentziako Generalitateko osasun-langileen mobilizazioa

Valentziako Generalitateak GLODaren munduko aurrekontu handienetako bat kudeatzen du. Espainiako autonomia-erkidego guztiek bezala, aurrekontu gehiena GGKE-en bitartez bideratzen du, baina 2018tik zuzeneko lankidetza teknikoa bultzatzen du bertako osasun-langileentzako baimenen sistema baten bidez.

## Funtsezko datuak

- ELGAko GLBren arabera, Valentziako Generalitatearen GLOa 36 milioi dolarrekoa izan zen 2020an.
- Haren GLOaren % 80 eta % 95 bitartean GGKE-en bitartez bideratzen da.
- 2018tik, dekretu baten bidez xedatzen da urtean gehienez milioi bat euroko aurrekontu-zuzkidura bat emango dela osasun-langileen aldi baterako mobilizaziorako, garapen-ekintzetan eta laguntza humanitarioko ekintzetan parte har dezaten.
- Urtero 100 baimen baino gehiago ematen zaizkie medikuei, erizainei, teknikariei, laguntzaileei eta osasunarekin zerikusia duten beste eremu batzuetako espezialistei, adibidez, esku-hartze sozialekoei.
- Haren kontabilitate-inpaktua 100.000 eta 400.000 dolar bitartekoa izan da 2018-2020ko aldian.

## Testuingurua

Valentziako Generalitatea lankidetza deszentralizatuaren eragile nagusietako bat da funtsen bolumenagatik, 2016tik 2020ra bitartean 94 milioi dolar baino gehiago ordaindu ditu eta. Funts gehienak GKE-ek egikaritutako proiektuen deialdira bideratzen dira.

Osasuna Valentziako Erkidegoko lankidetzaren eremu nagusietako bat da eta, bertan, sektoreko zenbait GKE aritzen dira, hala nola Mugarik Gabeko Medikuak, Munduko Medikuak eta Vicente Ferrer fundazioa. Erakunde horietan, beste GGKE batzuetan bezala, boluntarioek oso zeregin garrantzitsua daukate, eta halaxe aitortzen du Espainiako legeriak; izan ere, administrazioei gomendatzen die enplegatu publikoei boluntariotza-jardueretan aritze aldera lanaldia egokitzeko edo murrizteko aukera eman diezaietela.

Bestalde, Valentziako Erkidegoak Spanish Technical Aid Response Team (START) proiektuarekin elkarlanean dihardu, zeinak ahalbidetzen baitu natura-hondamendiei erantzuteko osasun-langileak eta langile logistikoak mobilizatzea. START proiektua Osasunaren Mundu Erakundearen (OMEren) Emergency Medical Teams (EMT) ekimenaren barruan kokatuta dago. Haren helburua da nazioarteko mediku-taldeek natura-hondamendietarako erantzuna estandarizatzea, ukitutako populazioentzako arreta-kalitate ezin hobea ziurtatze aldera.

# Zuzeneko lankidetzako eredua

Testuinguru horretan, eta osasunaren sektoreko GKE-ekin eta Valentziako Medikuen Elkargoarekin kontsultak egin ondoren, Valentziako Generalitateak, 2018an, baimen-sistema bat abian jarri zuen bertako osasun-langileei proiektu humanitarioetan eta garapen-proiektuetan laguntzea ahalbidetzeko. Baimenok medikuei, erizainei, teknikariei, laguntzaileei eta osasunarekin zerikusia duten beste eremu batzuetako espezialistei, adibidez, esku-hartze sozialekoei eman dakizkieke. Estatutupeko langileek, langile funtzionarioek eta langile lan-kontratudunek eska ditzakete, baita beren eginkizuna gutxienez urte batez bete duten aldi baterako langileek ere.

Baimenek aste bat eta hiru hilabete bitartean iraun dezakete, baina sei hilabetera arte luzatzeko aukera dago. Era berean, arauketak xedatzen du lehen hilabetean ordainsari osoen % 70 jasoko dela gehienez, eta % 50 bigarren hilabetean eta hirugarrenean. Dekretuak beste berritasun bat sartu zuen, alegia, lankidetza-proiektuetarako baimenak dirauen denbora zerbitzu aktibotzat joko delako bermea. Horrek hainbat abantaila dakartza: plazaren erreserba, antzinatasunaren ondorioetarako denbora-zenbaketa, karrera profesionala eta merezimenduak. Horretarako guztirako, urteko milioi bat euroko aurrekontu-zuzkidura bat xedatu zen ordainsariak ordaintzeko eta langileak ordezteko.

Aipatzekoa da mota horretako laguntza teknikoa Kataluniako eta Aragoiko lankidetzan ere badagoela, GLBren arabera, baina aurrekontu eta arau-garapen eskasagoekin. Euskadin, osasun-langileak Perura eramateko misio bat bultzatu zen, COVID-19aren pandemiaren testuinguruan. Hain zuzen ere, osasun-langileen gaitasunak sendotzeko eta Ginea Bissauko erreferentziako ospitaleko asistentziaren kalitatea hobetzeko programa zabalago eta jarraitu bat sorrarazi du pandemiak. Gainera, jakina da horrelako ekintzak beste administrazio eta politika publiko batzuetan gauzatzen ari direla GLO gisa erregistratu gabe, zenbateko eskasa eta zenbaketaren konplexutasuna direla eta. Garapenerako lankidetzaren plangintzaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren ikuspuntutik, onuragarria da laguntza tekniko horiek kontabilitatean erregistratzea eta erregelamendu-esparru estrategiko batez hornitzea.

## INFORMAZIO GEHIAGO

Nazioarteko baimen sanitarioak arautzen dituen Valentziako Generalitatearen Dekretua | Valentziako Generalitatearen prentsa-oharra (2018) Osasun Globaleko I Ginea Bissau-Euskadi lankidetza programa

4. KASUA

# Espainiako toki-gobernuen lankidetza eta elkartasuneko funtsak

Lankidetza eta elkartasuneko funtsak elkarteak dira, zeinen bidez nazioarteko lankidetzarako azpiegitura erkide batez hornitzen baitira toki-gobernuak eta Espainiako eskualde bereko beste eragile batzuk. Besteak beste, funtsek udalerriei ahalbidetzen diete garapen-bidean dauden herrialdeetako beren homologoekin laguntza teknikoko zuzeneko harremanak sortzea.

## Funtsezko datuak

- Espainiako udalerriak, gutxi gorabehera, herrialdeko aldebiko GLOaren % 10en arduradunak dira.
- Laguntza horren zati bat 9 lankidetza-funtsaren bitartez kudeatzen da.
- 70 pertsonak lan egiten dute, hamalau bulegotan, zazpi autonomia-erkidegotan banatutako 1.149 udal eta toki-erakunderi nazioarteko lankidetzako zerbitzuak emateko.
- Haren urteko aurrekontu agregatua 15 milioi euro dira.
- Azken 20 urteetan, ia 1.000 espezialistak hartu dute parte, funtsen bitartez, nazioarteko laguntza teknikoko 360 misiotan.

## Testuingurua

1986an, pobreziaren aurkako eta errenta nazional gordinaren % 0,7 GLOra bideratzearen aldeko mobilizazio sozial handiko testuinguru batean, Fons Catalá de Cooperació al Desenvolupament funtsa sortu zen, udal-lankidetzako ahaleginak bateratzeko helburuarekin, batez ere Ertamerikan eta Kariben. Fons Cataláren ondoren beste hainbat funts sortu ziren: Euskal Fondoa (Euskal Toki Erakunde Kooperanteen Elkartea, 1988), Fons Valencià (1992), Fons Mallorquí de Solidaritat i Cooperació (1993), Fons Menorquí de Cooperació (1993), Fondo Galego de Cooperacion e Solidariedade (1997), Fons Pitiús de Cooperació (1999), Fondo Andaluz de Municipios para la Solidaridad Internacional (2000) eta Fondo Extremeño Local de Cooperación al Desarrollo (2002).

Udal-lankidetza bultzatzeaz gain, frogatuta dago funtsak erantzun eraginkorra direla GLOak erakunde txikiei ekartzen dizkien kudeaketa-erronketarako, horrelako erakundeetan ezin baita sortu nazioarteko lankidetzari bakarrik eskainitako unitaterik. Gaur egun, funtsek beren bederatzi egoitzetan dauzkate talde espezializatuak, baita bost eremu-bulego ere: Ekuadorren, Marokon, Mauritanian, Ertamerikan eta Senegalen.

Azkenik, funtsek behetik gorako egitura bat antolatu dute Espainiako udalerriak garapenerako lankidetzaren arloan koordinatzeko eta ordezkatzeko. Egitura hori nabarmen indartu zen 1995ean, Lankidetza eta Elkartasun Funtsen Konfederazioa (CONFOCOS) eratzean. Funtsen Konfederazioak toki-gobernuen eta garapenerako lankidetzaren estatu-topaketak antolatzen ditu eta elkarrizketa eta koordinaziorako nazioarteko beste gune batzuetan parte hartzen du. Hitzarmenak dauzka Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziarekin (AECIDekin) eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioko Garapen Jasangarriko Politiken

Zuzendaritza Nagusiarekin (DGPOLDESekin), eta aurreikusita dago 2022ko lankidetza-legean ezarritako Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzaren Goi Kontseiluan ordezkatuta egotea.

## Zuzeneko lankidetzako eredua

Udal-funtsek GGKE-entzako proiektu-deialdiak kudeatzen dituzte, hiriz hiriko lankidetza-proiektuak sustatzen dituzte eta langile espezializatuek laguntza teknikoak ematea errazten dute. Azken jarduera hori ia nabarmendu gabe gertatzen da GLOari buruzko estatistiketan, baina funts guztien ibilbidearen konstantea eta zuzeneko lankidetzaren eredu bat da. CONFOCOSen datuen arabera, azken 20 urteetan, 21 herrialdetako gutxi gorabehera 100 udalerritara joateko mobilizatu dira langile espezializatuak (ia 1.000 pertsona), laguntza teknikoa emateko 360 misiotan. Kudeaketa, koordinazio eta ordezkaritzarako egituraz baliatuz, funtsek Latinoamerikako eta Afrikako udalerrien aholkularitza-eskariak bideratzen dituzte eta, zenbait sistemaren bitartez, udalerri bazkideetako langile tekniko egokiak identifikatu eta mobilizatzen dituzte, hurrengo adibideetan azaltzen den moduan.

### Especialistas en Cooperar (Lankidetzan Espezialistak)

Deialdi honek lehen Vacaciones con Trabajo (Oporrak Lanean) zuen izena. Horren bidez, Fondo Galegok harekin elkarlanean diharduten udalerrien laguntza teknikoko eskariak argitaratzen ditu, laguntzaren irismena, helburuak eta beharrezko profil teknikoa zehaztuta. Hamalau ediziotan, 46 laguntza tekniko ahalbidetu ditu turismoaren, arkitekturaren, gizarte-lanaren, berdintasunaren, enpleguaren, finantzen, liburutegien eta informatikaren arloan, Nikaraguan, Kuban, Perun, Mozambiken eta Cabo Verden.

### Udal-lankidetza teknikoaren datu-basea

Fons Catalá de Cooperació funtsak datu-base batean beren profil teknikoa deskribatzeko aukera ematen die udal-langileei, Hegoko udalerriek eskatzen dituztenean laguntza teknikoak identifikatzeko. Datu-baseko inskripzioa dinamizatzeko, funtsak *Seis Claves para Comprender la Cooperación Técnica Municipal* («Udal-lankidetza teknikoa ulertzeko sei gako») izeneko gida argitaratu du. Bertan, lankidetza-modalitate hori defendatzen du, udalerriek dakarten balio erantsiagatik, Hegoko gaitasunen indartzean dituzten ondorioengatik eta udalerri kooperanteko langileen garapen profesionalagatik.

### Programa de Voluntarios Expertos (Boluntario Adituen Programa)

Garapenerako Lankidetzaren Extremadurako Toki Funtsak (FELCODEk) 16 urte daramatza Boluntario Adituen Programa sustatzen. Hain zuzen ere, programak Extremadurako tokiko munduaren eta Latinoamerikakoaren artean ezagutzak eta esperientziak trukatzea eta laguntza ematea ahalbidetzen du. Cáceresko eta Badajozko udalerriek, mankomunitateek eta aldundiek koordinatzen dute eta tokiko zenbait erakunde eta entitate bazkideren laguntza dauka. Haren helburuak dira FELCODEk lan egiten duen herrialdeetako tokiko mundua indartzen laguntzea eta Extremadurako langile teknikoak garapenerako nazioarteko lankidetzaren eremura hurbiltzea. Programaren hasieratik 2022ra arte, Extremadurako toki-eremuan lan egiten duten 282 pertsonak eman dituzte beren ezagutza, laguntza teknikoa eta Hegoko herrialdeetako udalerriekiko konpromisoa.

**INFORMAZIO GEHIAGO**

CONFOCOS | Especialistas en cooperar | Seis claves para comprender la cooperación técnica municipal | Programa de Voluntarios Expertos

5. KASUA

# Andaluziako zuzeneko lankidetza

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Andaluziako Agentziak (AACIDek) zuzeneko lankidetzako eredu propioa garatu du Espainiako testuinguru autonomikoan. Horretarako, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziarekin (AECIDekin) lankidetza-hitzarmena sinatu du, AECIDen lankidetza-bulego teknikoen sareak erabiltzea ahalbidetzen diona.

## Funtsezko datuak

- Andaluzia bai kopuru absolututan bai kopuru erlatibotan zuzeneko lankidetza gehien gauzatzen duen Espainiako autonomia-erkidegoa da. Zehatz-mehatz, 2016-2020ko aldian, lankidetzari eskaini zizkion 203 milioi dolarretatik 39 milioi baino gehiago (% 19) zuzeneko lankidetzarako izan ziren.
- Hauek izan ziren Andaluziako 2016-2020ko zuzeneko lankidetzaren eremu tematiko nagusiak: politika publikoak eta lurraldeko administrazio-kudeaketa (deskontzentrazioa eta deszentralizazioa), lurraldeko landa-garapena eta nazio azpiko gobernuen indartzea eta lurralde-antolamendu eta hirigintza jasangarria.
- Andaluziako 2016-2020ko zuzeneko lankidetzaren hartzaile nagusiak Maroko, Senegal, Mozambike, Ertamerikako Integrazioaren Sistema, El Salvador eta Honduras izan ziren.

## Testuingurua

Garapenerako Lankidetzaren Andaluziako III. Planak (2020-2023) (PACODEk) eragile anitzeko eta maila anitzeko aliantzetan oinarritutako betearazpen-metodologia bat aplikatzearen alde egiten du. Ildo horretan, AACIDek, Espainiako eta munduko lankidetza deszentralizaturako aurrekonturik handiena duten eragileetako bat izan arren, beti egin du esplizitu estatuko lankidetzarekin eta, bereziki, haren plan zuzentzaileekin eta Herrialderako Elkarketa Esparruekin (MAPekin) bat egiteko asmoa. Plan horien barruan, bere espezializazio-nitxoa bilatzen du.

PACODEk garapenerako politiken koherentzia (GPK) ere azpimarratzen du, 2030 Agendaren esparruan, eta lankidetza-batzordearen bitartez sustatzen du. Batzorde horretan, Andaluziako Juntak bere zuzendaritza-zentro bakoitzean puntu fokalak identifikatzen ditu eta GPK sustatzeko eta garapenerako lankidetza zeharkako bihurtzeko elkarrizketak sortzen ditu. Halaber, PACODE GJHak tokian tokiko testuinguruan kokatzeaz ari da eta Andaluziaren esperientzia autonomikoaren balioa azpimarratzen du, baita 2030 Agendarako funtsezkoak diren zenbait sektore, hala nola osasuna, hezkuntza, ingurumena eta gizarte-politikak, garatzearen balioa ere.

## AECIDen eta AACIDen arteko lankidetza

Testuinguru horretan, Andaluziako Juntak zuzeneko lankidetzako eredu bat garatu du, AECIDekin elkarlanean aritzean eta Juntako sail guztien lankidetza teknikoa bideratzean oinarritua. Lankidetza hori formalizatzeko, AECIDekiko hitzarmen bat sinatu zuen 1997an, eta 2021ean berritu. Horren arabera, AECIDek bere lankidetza-bulego teknikoetako (LBTetako) espazioa

lagatzen die AACIDeko langileei. Modu horretan, AACIDeko langileek zuzeneko lankidetzako harremanak sor ditzakete Andaluzioako lankidetzan lehentasuna duten herrialdeekin, MAParen barruan. Batzuetan, proiektu horiek AECIDen beste ekintza zehatz batzuekin batera gauzatzen dira eta gobernu zentralaren eta gobernu autonomikoaren esperientziekin koherentea den lan-banaketa ahalbidetzen dute. Horrela, AECIDen eta AACIDen baterako formulazioak garatzen dira eta horrek inpaktu handiagoa sortzen du.

Gainera, AECIDek Andaluziako Juntaren erakunde laguntzaile gisa esku hartzen du AACIDen zuzeneko lankidetzarako dirulaguntzen betearazpen finantzariorako; hala ere, dirulaguntzok Andaluziako GLO gisa zenbatzen dira. AECIDen kontu korronte batzuk herrialde hartzailean beste administrazio publiko batzuei eskaintzeko erabiliz, AACIDek Espainiako lankidetzaren eta haren LBTen azpiegitura finantzarioaz eta administrazio-azpiegituraz baliatzen da laguntza bideratzeko eta haren jarraipen finantzarioa egiteko.

Modu berean, AACIDek Andaluziako Juntako beste sail batzuen lankidetza teknikoa bideratzen du; hain zuzen ere, sail horiek, denborarekin, beraien lankidetza-harremanak ezarri dituzte modu autonomoan edo beste agentzia batzuen babespean, hala nola AECIDen laguntzaz. Hauek dira zuzeneko lankidetzan parte hartzen duten Andaluziako sail nagusiak: Nekazaritza Saila, Sustapen eta Etxebizitza Saila, Ingurumen Saila, Ogasun Saila, Energiaren Andaluziako Agentzia, Administrazio Publikoaren Andaluziako Institutua, Estatistikaren eta Kartografiaren Andaluziako Institutua, Emakumearen Andaluziako Institutua eta Osasun Publikoaren Andaluziako Eskola.

Hona hemen lankidetza-eredu horren adibide zehatz batzuk:

### Kuban transplante-sistema abian jartzea

Andaluziak, Andaluziako Osasun Zerbitzuaren (SASen) bidez, Kubako Transplante Unitatea sortzen eta abian jartzen lagundu dio Kubako Gobernuari, ezagutza transferituz ez ezik Kordobako Reina Sofía ospitalearen, Sevillako Virgen del Rocío ospitalearen eta Kubako CIMEQ zentroaren artean baterako asistentziako unitateak sortuz ere.

### El Salvadorko osasun-sektorea erreformatzea

MAParen lehentasuna jaso zuen eta AECIDek ministerio-mailan babestu zuen erreforma horren barruan, AACIDek lurraldean osasun-zerbitzuak deskontzentratzeko programa bat finantzatu zuen eta Osasun Publikoaren Andaluziako Eskolaren laguntza teknikoa mobilizatu zuen.

### GJHak tokian tokiko testuinguruan kokatzea

Mozambikeko Maputoko eta Delgado Lurmuturreko eskualdeetan, AACIDek zuzeneko lankidetzan dihardu lurralde-garapena sustatzeko eta GJHak tokian tokiko testuinguruan kokatzeko deszentralizazioaren eremuan.

### Ertamerikako Integrazioaren Sistema (SICA)

SICAren esparruan, Lurraldeko Landa Garapenerako Ertamerikako Estrategia (ECADERT) babesten ari da AACID. Haren helburua da landa-garapena sustatzea eta desparekotasunen murrizketa, inklusioa eta garapen jasangarriaren eredua bultzatzen eta errazten dituen instituzionaltasun soziala eraikitzea.

## INFORMAZIO GEHIAGO

AACID | PACODE | AACIDen eta AECIDen arteko hitzarmena

6. KASUA

# Japoniako prefekturen eta hirien lankidetza teknikoa

Japoniako prefekturek eta hiriek laguntza teknikoko ekintza ugari baina txikietan ardazten dute garapenerako beren lankidetza. Ekintzok hiri-politikekin eta landa-garapenarekin lotutako askotariko gaiak ukitzen dituzte. Laguntza tekniko horiek hirien eta eskualdeen nazioarteko jarduera dinamizatzeko estrategietan kokatuta daude eta Nazioarteko Lankidetzaren Japoniako Agentziaren (JICAren) gero eta babes handiagoa daukate. Izan ere, JICAk «nazioarteko lankidetza Japoniako kulturaren zati bihurtzea» du helburu.

## Funtsezko datuak

- Hirien eta eskualdeen arteko lankidetza teknikoa da Japoniako GLODaren helmuga nagusia (% 36).
- Japoniako lankidetza tekniko deszentralizatuaren % 56 Asiako eta Ozeano Bareko aldameneko herrialdeetan gauzatzen da.
- % 50 hiri-politikei eskaintzen zaie: hirigintzako garapena eta kudeaketa, ura eta saneamendua, hondakinak, hondamendien prebentzioa eta deszentralizazioa.

## Testuingurua

Lankidetza deszentralizatuak ehuneko txikiagoa hartzen du Japoniako lankidetza guztiaren barruan, zeina historikoki burokratikotzat, zentralizatutzat eta azpiegitura-proiektu handien menpekotzat jo baita. Hala ere, Japoniako hiriek eta prefekturek lankidetza teknikoko harreman egonkorrak sortu dituzte Hegoko beren homologoekin, kanpo-harreman zabalagoak sustatzeko politiken esparruan. Horrelako politikek Iparreko hiriekiko truke teknikoak eta sustapen komertzial eta turistikoko ekintzak barne hartzen dituzte. Zuzeneko lankidetza teknikoaz gain, Japoniako GLODak GKE-en proiektuak eta ikasketa-bekak ere finantzatzen ditu bere lurraldean.

Japoniako lankidetza deszentralizatua hirietan modu autonomoan eta gobernu zentralaren lankidetzarekiko harremanik gabe sortu zen arren, 2010eko hamarkadaren erdialdean bien arteko sinergiak ezarri ziren. Garai horretan, Kanpo Arazoetako Ministerioak lankidetza ofiziala herritarrengana hurbiltzearen alde egin zuen eta JICAk GKE-ekin, unibertsitateekin, enpresa-elkarteekin eta toki-gobernuekin aliantzak ezartzeko mandatua jaso zuen. Gaur egun, JICAk sozietate zibilarekin elkarlanean aritzeko bere estrategiaren barruan babesten du Japoniako lankidetza deszentralizatua. Hain zuzen ere, «nazioarteko lankidetza Japoniako kulturaren zati bihurtzea» da estrategiaren lema. JICAk Japoniako GKE-ei, boluntariotza-programei eta garapenerako hezkuntzari ematen dien babesa ere badago estrategia horren barruan.

Eremu horretan daukan programa nagusiak, «JICA Lankidetza Programa (JPP)» delakoak, enpresen, GKE-en, unibertsitateen eta toki-gobernuen ekintzak finantzatzen ditu, hiru baldintza hauek betetzen dituztenak, hain zuzen ere: Japoniako eragileek egiten duten lankidetza teknikoaren eskaintzan oinarritzen dira, garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleen diru-sarrerak eta bizibideak hobetzen dituzte eta Japoniako herritarren partaidetza eta sentsibilizazioa sustatzen dituzte.

## Zuzeneko lankidetzako eredua

Japoniako hiriek eta prefekturek garapen-bidean dauden herrialdeetako beren homologoei eskaintzen dizkieten prestakuntza eta aholkularitzako ekintza txiki askoz osatuta dago Japoniako zuzeneko lankidetza deszentralizatua. Lankidetza teknikoaren eremuak toki-politikak dira beti, eta horiek lantzeko Japoniako erakundeetako langileak mobilizatzen dira. Hiriek hirigintza-antolamenduaren, uraren eta saneamenduaren, hondamendien prebentzioaren eta hondakin-kudeaketaren arloko laguntza teknikoa eman ohi dute, baina prefektura batzuek nekazaritzaren, arrantzaren eta landa-garapenaren eremuan ere esku hartzen dute. Halaber, zeharkako gaiei buruzko laguntzak barne hartzen dira, adibidez, administrazio-deszentralizazioari buruzkoak, baita eskumen partekatuen arlokoak ere, hala nola hezkuntzaren eta osasunaren arlokoak.

Laguntza tekniko horietako asko hiriek eta prefekturek kudeatzen dituzte erabat, nazioarteko beste truke batzuekin batera, baina toki-gobernuek lankidetza teknikoko harremanak hasi edo sakondu ditzakete JICA estatu-agentziaren eta tokian tokiko bulegoen laguntzarekin. Alde batetik, JPPk toki-gobernuentzako azpiprograma bat dauka, lankidetza-proposamenetarako finantzen eta kudeaketaren arloko laguntza eskaintzen duena, herrialde bazkideetan toki-garapeneko erronkei heltzeko eta nazioarteko trukeen bitartez Japoniako eskualdeak suspertzeko helburu bikoitzarekin. Beste aldetik, JICAk garapenerako lankidetzako gaitasunak indartzeko zerbitzuak eskaintzen dizkie hiriei eta prefekturei, adibidez, JICAko langileak lagatzen dizkie toki-gobernuei lankidetza-planak koordinatzeko, beren proiektuak diseinatzen laguntzeko eta giza baliabide globalak garatzeko.

### Yokohama, uraren eta saneamenduaren arloko lankidetza teknikoa

Yokohama hiriko ur-azpiegituren eta ingurumen-plangintzaren bulegoek, uraren enpresen elkartearekin batera, laguntza teknikoa ematen diete aldizka zenbait toki-gobernuri: Hanoi eta Hue (Vietnam), Lahore (Pakistan) eta Lilongwe (Malawi). Halaber, ingeniaritzari buruzko prestakuntza ematen diete Afrikako profesional gazteei. Ekintza horietako batzuk beren baliabideekin egiten dituzte eta beste batzuk, berriz, JICAren laguntzarekin, baina guztiak daude Yokohama hiria eta haren enpresak uraren arloan nazioartekotzeko lankidetza publiko-pribatu batean kokatuta.

### Takikawak Uvurkhangai (Mongolia) probintziaren nekazaritza-garapenerako emandako laguntza

Takikawa hiria, nazioarteko trukeetarako bere elkartearen bidez eta JICAren eskutik, Uvurkhangai probintziara eraman du bere nekazaritza-enpresen laguntza teknikoa, tipularen laborearen produktibitatea, haren ondoriozko diru-sarrerak eta balio-katea hobetzeko helburuarekin.

**INFORMAZIO GEHIAGO**

JICAren 2021eko txostena | JPP programa | Yokohama, uraren eta saneamenduaren arloko lankidetza teknikoa,

7. KASUA

# Ertamerika-Euskadi erakunde arteko lankidetza uraren eta saneamenduaren arloan

AKUAL ur eta saneamenduaren arloko garapenerako lankidetza-programa bat da, zeinean hiru gobernu-mailak (autonomia-erkidegokoak, foru-aldundietakoak eta udalerrietakoak) GLODerako emandako funtsek bat egiten duten eta El Salvadorko, Costa Ricako eta Euskadiko uraren sektoreko erakundeen arteko lankidetza teknikoko harremanak sortzen diren.

## Funtsezko datuak

- Euskal lankidetza autonomikoa munduko lankidetza deszentralizatu garrantzitsuena izan zen 2016-2020ko aldian, 56 milioiko aurrekontua eduki baitzuen batez beste, GLBren arabera.
- Euskadiko foru-aldundien eta probintzia-hiriburuen aurrekontuak ere nabarmentzen dira Espainiako lankidetzaren toki-emaileen artean.
- Euskadin, zuzeneko lankidetza GLODera bideratutako funtsen % 3 baino gutxiago da.

## Testuingurua

eLankidetza-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia munduko lankidetza deszentralizatuaren eragile garrantzitsuenetako bat da. Euskadiko foru-aldundien eta udalen laguntzarako aurrekontuak ere nabarmentzen dira Espainiako toki-lankidetza guztian. Autonomia-erkidegoko, foru-aldundietako eta udalerrietako euskal administrazioak Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordean (GLEBen) koordinatzen dira.

Euskal administrazioen lankidetzarako aurrekontuetako diru gehiena GGKE-en bitartez bideratzen da. Zuzeneko lankidetzak ez du garapen bera izan eta haren finantzaketa oso txikia da GLOari buruzko estatistiketan. Hala ere, udal-eremuko erakunde batzuek, hala nola Gasteizko Udal Urak SAk (AMVISAk), badute lankidetza teknikoko ibilbide luzea. Gainera, Euskal Fondoak, Euskal Toki Erakunde Kooperanteen Elkarteak, zuzeneko lankidetzako harremanak bideratu ditu, aurreko ataletan azaltzen den moduan, besteak beste Ertamerikan, non ordezkaritza bat daukan.

## Zuzeneko lankidetzako eredua

Lankidetza teknikoko aurretiazko esperientzietatik abiatuta eta Euskal Fondoak Ertamerikan duen ordezkaritzaren laguntzarekin, 2016an, GLEBek kontsultatzeko eta formulatzeko prozesu bati ekin zion, ur eta saneamenduaren arloko erakundearteko lankidetza-programa (AKUAL) prestatzeko asmoz. Bertan, Euskadiko, Costa Ricako eta El Salvadorko erakunde publikoen arteko lankidetza teknikoak garrantzi handia du. Uraren kanonaren bidez bildutakoaren % 5 urtean lankidetza-ekimenetara bideratzeko Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordio bat lagungarria izan zen ekimen horretarako. Uraren kanonak, Uraren Euskal Agentziak (URAk) kudeatuak, ingurumen-

jasangarritasuna denboran bermatzea du helburu eta, horretarako, portaeren aldaketa sustatzen du eta uraren erabileran jokabide desiragarrien eta efizienteen alde egiten du.

AKUALek bai azpiegituren eraikuntzari bai erakundeen indartzeari heltzen die, Ertamerikako uraren bi eragiletan ardaztuta: El Salvadorko Akueduktuen eta Estolderiaren Administrazio Nazionala (ANDA) eta Costa Ricako Akueduktuen eta Estolderiaren Institutua (AyA). Horretarako, euskal eragileek, GLODaz gain, URAren laguntza teknikoa eta Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA), Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Gipuzkoako Ur Partzuergoa enpresa publikoena ematen dute.

Modu horretan, AKUAL programa, 2018-2021eko lehen edizioarekin, zuzeneko lankidetza deszentralizatua garatzeko eredua bihurtu da, erakunde arteko koordinazioan, Hegoko kontrako alderdiekiko baterako elkarrizketan eta uraren eta saneamenduaren arloko euskal lankidetzaren gaitasun teknikoen eta metatutako esperientziaren mugikortasunean oinarrituta. AKUALen lehen fasea amaitu ondoren, programa sistematizatu zen eta 2021-2024ko aldirako bigarren edizioa identifikatu zen.

Hauek dira programaren osagai nagusiak:

### Azpiegituren eraikuntza

Azpiegiturak eraikitzeko osagaian, ANDA biztanleei ur eta saneamendurako giza eskubidea bermatzeko azpiegitura bat eraikitzeko arduraduna da, El Salvadorko Anamorós eta Yucuaiquín udalerrietan lehen edizioan eta Jocoron bigarrenean, instalazio jasangarriak eraikiz.

### Lankidetza teknikoaren bidez erakundeak indartzea

Lehen edizioan, ANDAren eta AyA-ren kudeaketa teknikoko, operatiboko, administrazio-kudeaketako eta kudeaketa finantzarioko gaitasunak indartzeko lankidetza teknikoa gauzatu zen. Euskadiko, El Salvadorko eta Costa Ricako uraren arloko erakundeetako kudeatzaileen eta teknikarien artean esperientziak trukatu ziren, erakundeak indartzeko osagaiarekin bat etorriz. Bigarren edizioan, ANDArekin eta AyA-rekin ildo horretan sakontzen jarraitzeaz gain, Edateko Uraren eta Saneamenduaren Ertamerikako eta Dominikar Errepublikako Forora zabaldu da haren irismena.

### Erakunde arteko koordinazioa

Euskal Fondoak programa koordinatzen eta kudeatzen du. Horretarako, Ertamerikako eta Euskadiko bulegoetatik finantza-baliabideak administratu eta ezarpena kontrolatzen du. Gainera, eLankidetza — Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak erakunde arteko lankidetza dinamizatzeko duen rolak lan hori osatzen du. Tokian tokiko lana Oinarrizko Saneamenduaren, Osasun Hezkuntzaren eta Ordezko Energiaren El Salvadorko Elkartearen (SABES elkartearen) laguntzarekin egiten da. Lehen edizioaren sistematizaziotik ondorioztatu zen AKUALek lankidetzaren eta uraren arloko eragileen artean ahalegin ekonomikoak eta teknikoak bateratzeko balio izan duela.

## INFORMAZIO GEHIAGO

AKUAL | Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea (GLEB)

# ONDORIOAK

Aurreko ataletatik, lankidetza deszentralizatuari eta haren analisiari buruzko ondorio batzuk atera dira:

- **«Lankidetza deszentralizatu» terminoa** estatu azpiko gobernuek nazioarteko lankidetzan parte hartzeko askotariko moduei dagokie. Modu horiek gobernuok garapenerako laguntzaren finantzatzaile, bideratzaile edo hartzaile gisa duten eginkizunaren arabera aldatzen dira, beste faktore batzuen artean. Txosten hau estatu azpiko gobernu batek GLOa edo garapenerako laguntza ofizial deszentralizatua (GLODa) ordaintzea dakarren lankidetza deszentralizatuan ardazten da.

- 2030 Agenda onartu zenetik, **GJHak tokian tokiko testuinguruan kokatzearekin** lotutako lankidetza deszentralizatuaren egokitasunari buruzko narratiba berritu eta orokortu da. Narratiba horren arabera, estatu azpiko gobernuek nazioarteko lankidetzari ekartzen dioten balio erantsia, batetik, beren eskumen-eremuetan metatutako esperientzia litzateke eta, bestetik, lankidetza teknikoa gauzatzeko eta garapen-bidean dauden herrialdeetako beren homologoekiko sareak ezartzeko gaitasuna.

- Alde anitzeko lankidetza-erakundeek estatu azpiko gobernuetan gero eta interes handiagoa duten arren eta gaiari buruzko azterketa sakonak argitaratu diren arren, azterketak ez dira instituzionalizatu eta ez dago lankidetza deszentralizatuari buruzko **aldizkako txosten sistematikoak** ekoizten dituen nazioarteko iturri ofizialik. Beraz, egokia da ELGAren datu-baseak, GLOari buruzko informazio zehatzena dutenak, ustiatzea laguntza-jarduerak emailea zentralizatua edo deszentralizatua den kontuan hartuta birsailkatzeko eta urteko txostenak sortzeko. Era berean, egokia da laguntza-motak eta laguntza-kanalak **birsailkatzea**, **eragile deszentralizatuentzat** esanguratsua den kategorizazio bat eskaintzeko, hain zuzen ere, kategoria hauek barne hartzen dituena: zuzeneko lankidetza, lankidetza teknikoa, GKE-en bidezko lankidetza eta hezkuntza globala.

- Ikuspegi deszentralizatuko 2020ko GLOari buruzko analisiak, aurreko urteetako analisiei gehituta, adierazten du **lankidetza deszentralizatua hazten jarraitzen ari dela** eta 2005etik hirukoiztu egin dela.

- Aurreko azterketetako emaitzak berretsi dira, hala nola lankidetza-sistema deszentralizatuak dauzkaten herrialde gutxi (11) daudela eta **deszentralizazio-ehunekoak oso aldakorrak direla** (Japoniako % 0,01etik Espainiako % 36raino).

- Laguntza-deszentralizazio handieneko herrialdeetan, gobernuaren eskualde-mailako eragile finantzatzaile batzuek ELGAko GLBko estatu kide batzuek baino laguntza-aurrekontu handiagoak dauzkate. Hori gertatzen da **Flandriako, Euskadiko, Kataluniako, Valentziako eta Andaluziako gobernuetan**.

- Lankidetza deszentralizatuaren beste alderdi ezagun bat, 2020ko laguntzaren analisiaren bidez baieztatua, **tokian bertan** egindako gastu asko GLO gisa egozten direla da. Praktika horrek Austriako, Kanadako eta Alemaniako GLODaren % 90i baino gehiagori eragiten dio eta tokian bertan gauzatutako GLOD globalaren proportzioa % 75era igotzen du.

- GLODaren gainerako % 25a garapen-bidean dauden herrialdeei benetan transferitutako nazioarteko laguntza da. Gehiena **GGKE-en** bitartez bideratzen da, eta oso gutxi zuzenean. Zuzeneko lankidetzaren arloan, esplizituki laguntza tekniko gisa aitortutako lankidetza ez da % 3ra heltzen. Datu hori eta lehen aipatutako diskurtsoa guztiz bestelakoak dira; izan ere, diskurtso horren arabera, GJHak tokian tokiko testuinguruan kokatu behar dira eta estatu azpiko emaileen balio erantsia ezagutza-hornitzaileak izatea da.

- Aurrekontuan duen pisu eskasa gorabehera, zenbait herrialdetan eduki teknikoa duten zuzeneko lankidetzako harremanak sortzen dira. Txosten honetan lankidetza deszentralizatuari dagokionez nagusi den narratibarekin bat datozen **zazpi kasu-azterketa** egin dira, Belgikari, Frantziari, Japoniari eta Espainiari buruz.

- **Flandriako Gobernua** eragile garrantzitsu samarra da zuzeneko lankidetzan, oso herrialde gutxitan kontzentratzeari esker. Hain zuzen ere, herrialdeotako gobernu zentralekin nazioarteko akordioak sinatzen ditu, kanpo-ekintzan dituen eskumenetan oinarrituta, eta GLOrako urte anitzeko planak negoziatzen ditu. Harreman formal eta egonkor horien esparruan, mota guztietako garapen-eragileekiko loturak sortzen ditu, administrazio publikoak barne (eragileok ez dute zertan estatu azpikoak izan), eta lankidetza teknikorako aukera puntualak identifikatzen ditu.

- **Frantziako lurralde-kolektibitateek** lortu dute zentralismoagatik ezaguna den herrialde bat lankidetza tekniko deszentralizatuan aktiboena izatea. Izan ere, Kanpo Arazoetako Ministerioak diseinatzen eta zuzentzen du toki-administrazioek toki-politiketarako nazioarteko laguntza teknikoa ematea errazten duen sistema.

- **Japonian, hiriek eta prefekturek** beren kabuz antzeko laguntza teknikoak gauzatzen dituzte, hiriak nazioartekotzeko politika zabalagoen barruan. Hala ere, azken urteetan, gobernu zentralak partaidetza hori aktiboki sustatu du, lagundutako finantzaketa emanez, JICAren eta haren tokian tokiko bulegoen laguntza teknikoa eskainiz eta nazioarteko lankidetza Japoniako kulturan integratzeari buruzko ikuspen estrategikoa sustatuz.

- Espainian, lankidetza teknikoko zenbait eredu sortu dira: **Andaluziako eredua**, zeina estatuko lankidetza-agentziaren, AECIDen, azpiegituran oinarrituta baitago; **udal-funtsen** eredua, zeinak egoitzan eta tokian bertan bulegoak baitauzka eta laguntza teknikoko eskaintzak eta eskariak kudeatzeko askotariko programak abian jartzen baititu; eta **Euskadiko erakunde arteko programa**, uraren eta saneamenduaren arlokoa, non kontzentrazio geografiko eta sektorialak errazten baitu zenbait gobernu-mailak (autonomia-erkidegokoak, probintzietakoak eta udalerrietakoak) eta uraren sektoreko erakundeek bat egitea. Azkenik, **Valentziako Generalitateko osasun-langileei baimenak** emateko sistema bat abian jarri da, beste gobernu eta gobernu-arlo batzuetan badagoen praktika bat bultzatu eta formalizatzeko.

- Oro har, lankidetza deszentralizatuko ereduek Iparreko eta Hegoko administrazio publikoak konektatzen dituen **azpiegitura** bat behar izaten dute, eta hori arrotza da beren lurraldean kontzentratuta dauden estatu azpiko gobernuentzat. Praktikan, azpiegitura hori eraikitzeko hainbat modu daude, eta gehienak gobernu zentralaren lankidetzaren menpe daude hein batean. Espainiako udalerrien lankidetza-funtsak, beharbada, mendekotasun horren salbuespen nabarmenena dira; izan ere, beharrezko azpiegitura sortu da eta modu deszentralizatuan gobernatzen da.

# ERREFERENTZIAK

## Argitalpenak

AACID (2022) *III Plan Andaluz de Cooperación al Desarrollo (PACODE)*. Junta de Andalucía I Agencia Andaluza de Cooperación Internacional para el Desarrollo. Hemen eskuragarri: https://www.juntadeandalucia.es/sites/default/files/2022-03/200520_pacode3_maq.pdf (Atzipena: 2022ko abenduaren 5ean).

AECID (2021) «Resolución por la que se publica el Convenio con la Agencia Andaluza de Cooperación Internacional para el Desarrollo.», *BOE*, 159 (uztailaren 5ekoa). Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2021-11126 (Atzipena: 2022ko abenduaren 5ean).

Akhmouch, A. (2021) Rethinking Decentralised Development Cooperation in light of the Covid-19 pandemic Please contact: DDC challenges and priorities to respond to Covid-19 pandemic. Hemen eskuragarri: https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/DEVE-PR-648376_EN.pdf (Atzipena: 2021eko maiatzaren 1ean).

Alonso, J. A. (2021) *Notas sobre los desafíos de la cooperación al desarrollo y de la cooperación descentralizada en el nuevo contexto de la COVID-19*. Texto para la jornada «De la Crisis se sale Cooperando» organizada por la AVCD.

CGLU (2015) *Strengthening Decentralized Development Cooperation in a Post-2015 Setting: the Role of Local and Regional Governments*. Rabat: United Cities and Local Governments, World Summit of Local and Regional Leaders.

Coordinadora de Organizaciones para el Desarrollo-España (2022) «Análisis de los presupuestos autonómicos 2022». Hemen eskuragarri: https://coordinadoraongd.org/wp-content/uploads/2022/10/Analisis_Presupupuestos-AOD-2022__.pdf.

DAECT (2020) «Guía operativa de la cooperación descentralizada». Hemen eskuragarri: diplomatie.gouv.fr/IMG/pdf/cncd-guide_operationnel_v4g_interactive_cle87d351.pdf.

DOGV (2018) *Decreto 69/2018, de 25 de mayo*. Spain.

Fernández de Losada, A. (2021) *La cooperación descentralizada en tiempos de pandemia*, *Texto para la jornada «De la Crisis se sale Cooperando» organizada por la AVCD*. Hemen eskuragarri: https://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/jornadascooperaciondescentrali/es_def/adjuntos/Webinar_PonenciaFdezLosada202005.pdf (Atzipena: 2021eko maiatzaren 1ean).

Fons Catalá (2018) «Seis claves para comprender la cooperación técnica municipal».

GE (2022) *The Dublin Declaration on Global Education: A Strategy Framework for Improving and Increasing Global Education*. The European Congress on Global Educatio. Hemen eskuragarri: https://static1.squarespace.com/static/5f6decace4ff425352eddb4a/t/636d0eb7a86f6419e3421770/1668091577585/GE2050-declaration.pdf (Atzipena: 2022ko abenduaren 9an).

Global Task Force (2015) *Todos los ODS son locales: hacia una agenda de acción para Habitat III*. New York. Hemen eskuragarri: https://www.uclg.org/sites/default/files/declaracion_localgov_post_2015_summit.pdf (Atzipena: 2017ko abenduaren 2an).

Global Task Force (2018) «Statement at the 9th World Urban Forum», *World Assembly of Local and Regional Governments*, Kuala Lump.

Global Task Force (2019) «Outcome Document of the Durban Formal Session», *World Assembly of Local and Regional Governments*, Durban. Hemen eskuragarri: www.global-taskforce.org (Atzipena: 2021eko azaroaren 17an).

Global Task Force (2021) «Statement to HABITAT III», *World Assembly of Local and Regional Governmetns*, Quito.

González Martín, M. (2008) *¿Qué dice la agenda de la eficacia de la ayuda a la cooperación descentralizada?* Hemen eskuragarri: http://fride.org/descarga/COM_Agenda_Eficacia_ESP_jul08.pdf (Atzipena: 2017ko abenduaren 2an).

Government of Flanders (2019) «Country Strategy Paper Flanders Malawi 2019-2023». Hemen eskuragarri: https://www.fdfa.be/en/country-strategy-paper-flanders-malawi-2019-2023.

Government of Flanders (2021) «Flanders Mozambique Country Strategy Paper for Development Cooperation 2021-2025». Hemen eskuragarri: https://www.fdfa.be/sites/default/files/2022-03/2021 CSP Flanders Mozambique_WEB.pdf.

Gutiérrez Goiria, J. *et al.* (2022) *Potencialidades y prácticas de la cooperación al desarrollo descentralizada: una perspectiva internacional*. HEGOA, Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua (EHU).

Hafteck, P. (2003) «An introduction to Decentralized Cooperation: definitions, origins and conceptual mapping», *Public Administration and Development*. John Wiley & Sons, Ltd, 23(4), pp. 333-345. doi: 10.1002/PAD.286.

Happaerts, S. (2012) «Sustainable development and subnational governments: Going beyond symbolic politics?», *Environmental Development*, 4(1), pp. 2-17. doi: 10.1016/j.envdev.2012.07.001.

Jain, P. (2005) *Japan's Subnational Governments in International Affairs (Sheffield Centre for Japanese studies/Routledge series)*. Routledge. Disponible en: https://www.routledge.com/Japans-Subnational-Governments-in-International-Affairs/Jain/p/book/9780415649438 (Atzipena: 2022ko abenduaren 6an).

JICA (2021) *Japan International Cooperation Agency Report*. Hemen eskuragarri: https://www.jica.go.jp/english/publications/reports/annual/2021/fp4rrb000000sky0-att/2021_all.pdf (Atzipena: 2022ko abenduaren 6an).

Kania, M. (2021) «Modalities and Principles of Decentralized Cooperation of Sub-state Governments in Europe», (June).

De la Fuente, R. eta Fernández, J. (2009) «Los gobiernos locales y la cooperación para el desarrollo: retos de su coordinación en terreno», en *Congreso Asociación Española de Ciencia Política y de la Administración*. AECPA. Hemen eskuragarri: http://www.aecpa.es/uploads/files/congresos/congreso_09/grupos-trabajo/area06/GT02/04.pdf (Atzipena: 2017ko abenduaren 2an).

Martínez, I. eta Sanahuja, J. A. (2009) *La agenda internacional de eficacia de la ayuda y la cooperación descentralizada*. Madrid: Fundación Carolina. Hemen eskuragarri: http://observ-ocd.org/sites/observ-ocd.org/files/publicacion/docs/573_320.pdf (Atzipena: 2017ko abenduaren 2an).

Martínez, I. y Sanahuja, J. A. (2010) «La cooperación descentralizada en España y el reto de la eficacia de la ayuda», *ICEI Paper*, 18.

Martínez Martínez, I. (2019) La Cooperación Internacional ante un Contexto Global: Una Mirada al Caso Vasco, Tesis Doctoral. Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional, HEGOA.

Monreal, B. (2020) *Construir en la empatía: la cooperación descentralizada como catalizadora de la justicia social - Esglobal - Política, economía e ideas sobre el mundo en español*. Hemen eskuragarri: https://www.esglobal.org/construir-en-la-empatia-la-cooperacion-descentralizada-como-catalizadora-de-la-justicia-social/ (Atzipena: 2021eko maiatzaren 1ean).

ELGA (2005) «Aid Extended by Local and State Governments», *DAC Journal*, 6(4), pp. 1-54. Disponible en: https://www.oecd.org/dac/stats/35935258.pdf (Atzipena: 2017ko azaroaren 26an).

ELGA (2018) *Reshaping Decentralised Development Co-operation*, *Reshaping Decentralised Development Co-operation*. OECD. doi: 10.1787/9789264302914-en.

ELGA (2019) «Decentralised Development Co-operation: Unlocking the Potential of Cities and Regions », *OECD Development Policy Papers*, 22. Disponible en: https://cooperaciontriangular.org/wp-content/uploads/2021/07/23_OCDE-Decentralised-co-operation.Policy-Papers-No.22.pdf (Atzipena: 2021eko urriaren 22an).

ELGA (2020) *Aid for Civil Society Organisations*. Editado por OECD. Paris: Development Assitance Committee. Disponible en: http://oe.cd/dac-crs-code-lists (Atzipena: 2021eko urriaren 15ean).

NBE (2017) *Nueva Agenda Urbana*. Quito: Conferencia de las Naciones Unidas sobre Vivienda y Desarrollo Urbano Sostenible (Habitat III). Hemen eskuragarri: https://www.agenda2030.gob.es/recursos/docs/HABITAT.pdf (Atzipena: 2021eko apirilaren 21ean).

Ortega, A., Pérez, A. eta Sanz, A. (2018) «Innovating Global Governance: bottom-up, the inductive approach», *G20*

*Insights*. Hemen eskuragarri: https://www.g20-insights.org/policy_briefs/innovating-global-governance-bottom-up-the-inductive-approach/ (Atzipena: 2018ko urriaren 19an).

Pérez, A. (2018) «La ayuda internacional de gobiernos subnacionales y el caso particular de España», *Documentos de t*, 3(Febrero). Hemen eskuragarri: http://www.realinstitutoelcano.org/wps/wcm/connect/424300ac-863b-4c47-8656-b5fccc204040/DT3-2018-Perez-Ayuda-internacional-gobiernos-subnacionales-caso-Espana.pdf?MOD=AJPERES&CACHEID=424300ac-863b-4c47-8656-b5fccc204040 (Atzipena: 2018ko urriaren 19an).

Pérez, A. (2020) «Nuevas narrativas en la cooperación descentralizada española - Elcano», *ARI*, 80. Hemen eskuragarri: http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano_es/contenido?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_es/zonas_es/ari80-2020-perez-nuevas-narrativas-en-la-cooperacion-descentralizada-espanola (Atzipena: 2021eko otsailaren 5ean).

Platforma (2022) Decentralized Cooperation to localize the SDGs in Europe.

Reinsberg, B. eta Dellepiane, S. (2022) «The domestic sources of sub-state foreign policymaking: determinants of subnational development cooperation across European regions», *Journal of European Public Policy*, pp. 1-26. doi: 10.1080/13501763.2022.2055111.

EB (2008) *Comunicación de la Comisión al Consejo, al Parlamento, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones - Autoridades locales: agentes del desarrollo*. Brusela: Europako Batzordea. Hemen eskuragarri: http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex:52008DC0626.

Unceta, K. (2021) INFORME SOBRE LA LEY VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO. Vitoria-Gasteiz.

Yokohama.lg.jp (2020) *Activities 2020: Yokohama Water Business Association. Yokohama Waterworks Bureau, Yokohama Environmental Planning Bureau*. Hemen eskuragarri: https://www.city.yokohama.lg.jp/lang/overseas/yport/water_business/20210426151203418.html (Atzipena: 2022ko abenduaren 6an).

# Lineako baliabideak

akual.org (2022) *AKUAL*.

Uclg.org (2017) *Hiri eta Toki Gobernu Batuen webgunea*. Hemen eskuragarri: https://www.uclg.org/es

confederaciondefondos.org (2022) *Confederación de fondos de cooperación*. Hemen eskuragarri: https://www.confederaciondefondos.org/fondos/#:~:text=El Fondo Andaluz de Municipios,para el desarrollo humano local (Atzipena: 2022ko irailaren 9an).

Coordinadoraongd.org (2023) *Cooperación autonómica y local – La Coordinadora de Organizaciones para el Desarrollo*. Hemen eskuragarri: https://coordinadoraongd.org/nuestro-trabajo/cooperacionautonomicaylocal/ (Atzipena: 2023ko otsailaren 22an).

Destatis.de (2022) *Federal Statistical Office of Germany*. Hemen eskuragarri: https://www.destatis.de/EN/Home/_node.html.

diplomatie.gouv.fr (2022) *Action extérieure des collectivités territoriales*. Hemen eskuragarri: https://www.diplomatie.gouv.fr/fr/politique-etrangere-de-la-france/action-exterieure-des-collectivites-territoriales/.

Diplomatie.gouv.fr (2023) *Atlas français de la coopération décentralisée* – Ministère de l'Europe et des Affaires étrangères. Hemen eskuragarri: https://www.diplomatie.gouv.fr/fr/politique-etrangere-de-la-france/action-exterieure-des-collectivites-territoriales/atlas-francais-de-la-cooperation-decentralisee/ (Atzipena: 2023ko otsailaren 22an).

Elankidetza.euskadi.eus (2022a) «*Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (e-Lankidetza)*». Hemen eskuragarri: https://elankidetza.euskadi.eus/elankidetza/webela01-eduki/eu/.

Elankidetza.euskadi.eus (2022b) *Garapenerako Lankidetzaren Erakunde Arteko Batzordea*. Hemen eskuragarri: https://www.elankidetza.euskadi.eus/garapenerako-lankidetzaren-erakunde-arteko-batzordea/webela01-eduki/eu/.

Elankidetza.euskadi.eus (2022c) *Lankidetza deszentralizatua*. Hemen eskuragarri: https://www.elankidetza.euskadi.eus/lankidetza-deszentralizatua/webela01-edukideszent/eu/ (Atzipena: 2023ko otsailaren 22an).

Euskalfondoa.eus (2023) *Euskal Fondoa*. Hemen eskuragarri: https://www.euskalfondoa.eus/(Atzipena: 2023ko otsailaren

22an)

fdfa.be (2022a) *Flanders Chancellery & Foreign Office*.

Fdfa.be (2022b) *ODA project database*.

Felcode.org (datarik gabe) *Programa de Voluntarios Expertos*.

Fondogalego.gal (2022) *Especialistas en cooperar*.

Gva.es (2018) *2018/05/24ko prentsa-oharra*.

Hegoa.ehu.eus (2023) *Euskal Lankidetza Publikoaren Ataria*. Hemen eskuragarri: https://euskalankidetza.hegoa.ehu.eus/ (Atzipena: 2023ko otsailaren 22an).

Hegoa.ehu.eus (2023) *Liburutegia*. Hemen eskuragarri: https://biblioteca.hegoa.ehu.eus/ (Atzipena: 2023ko otsailaren 22an)

ine.es (2022) *Estatistikako Institutu Nazionala*. Hemen eskuragarri: https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=2853.

infoaod.maec.es (2023) *Info@OD - Sistema de información de la ayuda oficial al desarrollo*. Hemen eskuragarri: https://infoaod.maec.es/ (Atzipena: 2023ko otsailaren 22an).

juntadeandalucia.es (2022) *Agencia Andaluza de Cooperación Internacional para el Desarrollo*. Hemen eskuragarri: https://www.juntadeandalucia.es/organismos/aacid.html (Atzipena: 2022ko abenduaren 5ean).

observ-ocd.org (2023) *Observatori de Cooperación Descentralizada de la Diputación de Barcelona*. Hemen eskuragarri: https://www.observ-ocd.org/ (Atzipena: 2023ko otsailaren 22an).

oecd.org (2022a) *DAC and CRS code lists*. Hemen eskuragarri: https://www.oecd.org/dac/financing-sustainable-development/development-finance-standards/dacandcrscodelists.htm.

oecd.org (2022b) *DAC Glossary of Key Terms and Concepts*. Hemen eskuragarri: https://www.oecd.org/dac/financing-sustainable-development/development-finance-data/dac-glossary.htm.

ons.gov.uk (2022) *Office for National Statistics*. Hemen eskuragarri: https://www.ons.gov.uk/peoplepopulationandcommunity/populationandmigration/populationestimates/datasets/populationestimatesforukenglandandwalesscotlandandnorthernireland.

realidadayuda.org (2023) *La realidad de la ayuda: portal de transparecia y vigilancia de la cooperación al desarrollo I cooperación descentralizada, 2023*. Hemen eskuragarri: http://www.realidadayuda.org/glossary/cooperacion-descentralizada (Atzipena: 2023ko otsailaren 22an).

statbel.fgov.be (2022) *Statbel, the Belgian statistical office*. Hemen eskuragarri: https://bestat.statbel.fgov.be/bestat/crosstable.xhtml?view=fc14c1ce-7361-4d42-a892-fce8e81a1b79.

vitoria-gasteiz.org (2022) *AMVISA- Gizarte erantzukizuna - Garapenerako lankidetza*. Hemen eskuragarri: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&uid=u2ab9ac20_132fb85cbe7__7fb9.

## I. ERANSKINA

# METODOLOGIA

## GLODa

Txosten honek garapenerako laguntza ofizial deszentralizatuaren (GLODaren) ekintzak finkatzen ditu, alegia, estatu azpiko aurrekontuen bidez finantzatutako GLOaren jarduerak. Kopuruak kalkulatzeko, *Creditor Reporting System* (CRS) datu-basean erregistratutako laguntza-jarduerak hartu dira oinarri. ELGAko Garapenaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen du, erakunde horretako Garapenerako Laguntzaren Batzordeko (GLBko) herrialde guztiek elikatzen dute eta edonork Internet bidez atzi dezake. CRS sistemak gobernu emaileei beren laguntzaren egikaritzearen berri ematea ahalbidetzen die, jardueraz jarduera, eta urtero GLO bidez finantzatutako 200.000 ekintza baino gehiagoren 92 alderdiri buruzko informazioa eskaintzen du. Txostenak azken bost urte eskuragarrietako (2016-2020) datuak analizatzen ditu, 2020. urteko datuetan arreta berezia jarrita.

GLODa identifikatzeko, CRSko *agency name* eremua erabili da, zeinak jakinarazten baitu zer administraziok eman duen laguntza herrialde bakoitzaren barruan. GLBk berak oinarrizko taula batzuk[13] eskaintzen ditu eta, horietan, agentziak sei kategoriatan sailkatzen dira, *local governments* kategoria barne. Nahiz eta *local governments* eremua existitu, zentralizatuaren eta deszentralizatuaren arteko kategoriarako hurbilketa izan litekeen kategoria horrek eragileen sailkapen homogeneoa galarazten duten zenbait hutsune dauzka. Beraz, arazo hori konpontzeko, *agency name* eremua berrikusi da, zeinak herrialde bakoitzaren barruan laguntza zer administraziok eman duen jakinarazten baitu, eta, Interneteko datuetan oinarrituta, ELGAk zerrendatutako agentzia guztiak lankidetza zentralizatu edo deszentralizatu gisa sailkatu dira, txostenerako behar diren iragazkiak aplikatu ahal izateko.

Kasu batzuetan, *agency name* eremua «lankidetza deszentralizatua» kategoriaren xehakapena da eta estatu azpiko gobernu batera, oro har eskualdeko eremuko batera, heltzea ahalbidetzen du. Hiriei dagokienez, ordea, hori zailagoa da, haien laguntzak termino orokorrekin taldekatu ohi direlako. Espainian, adibidez, 17 autonomia-erkidegoetako laguntzak behar bezala bereizita daude, baina toki-erakundeenak MUNIC laburtzapenean taldekatuta daude.

## GLODaren kategoriak

Txosten honetako GLODaren kategorizazioa CRSko «laguntza-mota» eremuan oinarrituta dago, zeinak bidea ematen baitu laguntza deszentralizatuaren bi aldaera handi identifikatzeko: alde batetik, GLOen artean nagusia, alegia, finantza-baliabideen benetako transferentzia herrialde garatuetatik garapen-bidean dauden herrialdeetara (nazioarteko laguntza) eta, bestetik, agentzia emailearen lurraldean bertan erabiltzen den laguntza (tokian tokiko laguntza)[14].

[13] CRS kodeen zerrenda

[14] Laguntza deszentralizatuari buruzko lehen azterketa handian (ELGA, 2005), fenomenoak urtean 800 eta 1.200 milioi dolar bitartean metatzen zituela zenbatetsi zen eta identifikatu zen Alemaniako *länder*retan GLO gisa aipatutako ikasle-kostua zela kapitulu nagusia,

| Kategoria | CODE | Tipe_AID |
|---|---|---|
| **Nazioartekoa** | **A*** | Budget support |
| | **B*** | Core contributions and pooled programmes and funds |
| | **C*** | Project-type interventions |
| | **D*** | Experts and other technical assistance |
| **Tokian bertakoa** | **E*** | Scholarships and student costs in donor countries |
| | **F*** | Debt relief |
| | **G*** | Administrative costs not included elsewhere |
| | **H*** | Other in-donor expenditures (included Refugees in donor countries) |

Era berean, kategoria handi horiek azpikategoriatan zatitzen dira, «laguntza-mota» eta «kanala» eremuen konbinazioaren arabera. Horrela, GLOa lankidetza deszentralizaturako kontzeptu esanguratsutan xehakatu daiteke, hurrengo taulan ikusten den moduan.

| Kategoria | Azpikategoria | Laguntza-mota | Kanala |
|---|---|---|---|
| Nazioartekoa | GKEak (eta beste bazkide batzuk) | A*,B*,C*, D* | NGO, Multilateral |
| | Zuzeneko lankidetza | A*,B*,C*, D* | Donor government, Receipt government |
| | • Teknikoa | D* | Donor government, Receipt government |
| | • Proiektuak | A*,B*,C* | Donor government, Receipt government |
| Tokian bertakoa | Ikasleak | E* | Denak |
| | Errefuxiatuak | H02 - H05 | Denak |
| | Hezkuntza Globala | H01 | Denak |
| | Administrazio-kostuak | G01 | Denak |
| | Bestelakoak | F01 | Denak |

Atal nagusian azaldu den moduan, txostenak GLOaren xehakapenak honela laburbiltzea proposatzen du:




GLOari buruzko azterketa gehienetan bezala, txosten hau CRS datu-baseko eremuetan oinarritzen da lankidetza deszentralizatuaren ezaugarriak zehazteko. Eremuok helmugako herrialdea eta

guztizkoaren % 50 hartzen baitzuen. Gainerako laguntza deszentralizatua dela-eta, askotariko erabilerak jakinarazi ziren, lankidetza kulturala eta garapen-proiektu txikiak barne.

eremu geografikoa, sektorea eta kanala dira. Txosten honetarako, eremu horietan talde batzuk egin dira datuak ulerterrazagoak izan daitezen.

| EREMUA (taldea) | Eremu geografikoa (GLB) |
|---|---|
| **Africa** | Africa<br>South of Sahara |
| **America** | America<br>Caribbean & Central America<br>South America |
| **Asia and Pacific** | Asia<br>Far East Asia<br>Oceania<br>South & Central Asia |
| **Europe** | Europe |
| **MENA** | Middle East<br>North of Sahara |
| **Unspecified** | Regional and Unspecified |

**Txostenarekin batera, talde horiek egiteko erabili diren eta CRS datuen analisia erraztu duten oinarrizko taulak erantsi dira, Excel formatuan.**

# Lankidetza deszentralizatuaren profilak

GLODaren azterketan sakontzeko, lankidetza deszentralizatuaren profilak ezarri dira, herrialdeka edo estatuka. Erabaki horren arrazoia da «udalerri» edo «estatu federal» motako eragile orokorrei esleitzen zaizkien GLOD partida askotan xehetasunak falta direla eta, gainera, emaile deszentralizatuek antzeko lankidetza-profilak garatu ohi dituztela estatu bakoitzaren barruan, beren eskumen-esparruaren eta ibilbide historikoaren arabera.

Herrialde bakoitzari buruzko azterketa fitxa batean laburbildu da. Herrialde bakoitzaren fitxa aurkezpenerako ordenatzeko irizpidea deszentralizazio-maila da, alegia, GLO deszentralizatuak herrialdearen aldebiko GLOaren guztizkoari dagokionez duen ehunekoa. Fitxotan, honako atal eta funtsezko datu hauek laburbiltzen dira:

- **Hasierako atala**: estatu azpiko gobernuek 2020an bideratutako GLOaren guztizkoa (milioi dolarretan), herrialdeko aldebiko GLOari dagokionez duen ehunekoa eta modalitate-motaren araberako banaketa (nazioarteko GLOa edo tokian bertakoa) agertzen dira.
- **GLODaren eboluzioa**: grafiko horrek erakusten du nola eboluzionatu duen GLODak txostenean analizatutako 5 urteetan, milioi dolarretan eta aldebiko GLOari dagokionez duen ehunekoan, baita modalitatearen araberako banaketa ere.
- ***Nolakoa den laguntza* atala**: atal horretan, herrialde bakoitzeko laguntza zenbait analisi-ardatzetan xehakatzen da, 2020ko datuekin. Apartatu bakoitzean, grisez nabarmendutako zonan erakusten da zein den analisi-ardatzeko balio nagusia (ehunekotan). Jarraian,

herrialde bakoitzeko laguntzaren ezaugarriak zehazteko balio duten apartatuak azaltzen dira:

- Modalitatea: nabarmentzen da zer kategoriatara bideratzen den laguntza gehien modalitate bakoitzaren barruan (nazioartean eta tokian bertan), herrialdeko guztizko GLOari dagokionez. Ondoren, aurreko apartatuetan azaldutako kategorietako modalitate bakoitza bi grafikotan xehakatzen dira.
- Hartzailea: nabarmentzen da zer eskualdetara bideratzen den GLO gehien. Jarraian, eskualde bakoitzera bideratutako ehunekoa erakusten da. Gainera, Amerika, Afrika, MENA eta Asia eta Ozeano Bareko eskualdeetako lehen 3 herrialde hartzaileak aipatzen dira.
- Sektorea: nabarmentzen da zer sektoretara bideratzen den GLO gehien. Jarraian, GLOa sektoreka zehazten da, makrosektorearen araberako banaketa erakusten duen grafiko baten bitartez. Azkenik, «*Zerbitzu eta azpiegitura sozialak*» sektorea osatzen duten sektoreetan xehakatzen da (hezkuntza, osasuna, ura eta saneamendua, gobernua eta sozietate zibila, beste batzuk).

- ***Eragileak* atala**: herrialde bakoitzerako, GLOa bideratu duten lankidetza deszentralizatuko 10 eragile nagusiak erakusten dira, 2020ko zenbatekoa milioi dolarretan eta ehunekotan (herrialdeko guztizko GLODari dagokionez) adieraziz. Gainera, agentziaren eremuan xehetasun gehiago dauzkaten herrialdeetan (Espainian, Belgikan eta Alemanian), herrialdearen fitxa bigarren orri batean zabaltzen da. Bertan, **3 eragile nagusiei** buruzko datu batzuk zehazten dira, erakunde horien GLOaren ezaugarrien berri emateko.

## Zuzeneko lankidetza deszentralizatuko kasuak

Eduki teknikoko zuzeneko lankidetzaren adibideak bilatzeko, lehenik eta behin, azken bost urteetan zuzeneko lankidetza teknikoan aktiboenak izan diren bost herrialdeak identifikatu ziren. Gero, CRSko mikrodatuak analizatu ziren, bai lankidetza teknikoari bai zuzeneko lankidetzako proiektuei buruzkoak, aurrekontuagatik edo errepikapenagatik nabarmentzen diren jarduerak identifikatzeko. Adibidez, Espainian «*Channel reported name*» eremuko funtsen erreferentzia errepikatuak identifikatu ziren udalerriei eta erkidego batzuei egotzitako apunteen barruan eta zuzeneko lankidetzaren kategoriarekin bat datozen laguntza-mota eta kanaletan. Guztira, Espainiako 10 autonomia-erkidegotako 11 funts[15] aurkitu ziren. Denen artean 23 milioi dolar bideratu dituzte 2016tik 2020ra bitartean, eta % 69 zuzeneko lankidetzarako izan da. Udal-funtsekin lotutako eragiketen artean, AKUAL programa detektatu zen, erakunde arteko lankidetzaren kasu berezia, eredu desberdin gisa aurkeztua. Espainian, orobat detektatu zen zuzeneko lankidetzak pisu handia duela Andaluziako laguntzan zenbait sektoretan, baita Valentziako Erkidegoko langileen bidez osasun-sektorean ematen den laguntza teknikoaren zenbatekoak ere. Bi kasuek beste bi eredu identifikatzeko balio izan zuten.

Japonian eta Frantzian, zenbateko txikiko apunte asko identifikatu ziren, sektore eta herrialde ugaritan emandako udal-laguntza teknikoekin lotutakoak. Bi kasuak osorik hartuta aztertu ziren

[15] CONFOCOSen arabera Espainian 9 funts dauden arren, CRSko mikrodatuetan funtsak bilatzean beste funts batzuk agertu ziren, alegia, Cantabria Coopera eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (FNMC) eta haren Nafarroako Lankidetzarako Toki Funtsa.

eta estatu-estaldurako udal-laguntza teknikoko ereduak zirela ikusi zen. Belgikan, lankidetza deszentralizatuko hiru eragile (Brusela, Valonia eta Flandria) baino ez daudenez, Flandriako kasua aztertzea erabaki zen, guztizko GLODean eta zuzeneko laguntzan bolumen handiena zeukalako.

Azkenik, azpimarratzekoa da zenbait herrialdetako mikrodatuak analizatzean unibertsitate-kanalarekin eta goi-mailako hezkuntzaren sektorearekin erlazionatutako apunte asko aurkitu zirela. Apunte horietako batzuek zalantzan jarri zuten nazioarteko laguntza gisa edo mugaz haraindiko laguntza gisa egoztea zuzena zen. Gainera, ez zegoen argi tartean zeuden ikerketa-zentroetako batzuk administrazio publikoak ziren ala ez. Ondorioz, laguntza horiek analisitik kanpo uztea erabaki zen, hobe litzatekeelako ikerketaren eta goi-mailako hezkuntzaren arloko lankidetza deszentralizatuari buruzko azterketa zehatz batean sartzea. Erabaki hori dela eta, Alemania kasu-azterketetatik kanpo utzi zen.

Aztertutako kasuak dokumentatzeko, honako hauek berrikusi dira: aurretiazko kasu-azterketa bat (Jain, 2005), analizatutako zazpi erakundeen webguneak (Yokohama.lg.jp, 2020; confederaciondefondos.org, 2022; diplomatie.gouv.fr, 2022; elankidetza.euskadi.eus, 2022b, 2022a; fdfa.be, 2022a; juntadeandalucia.es, 2022), zuzeneko lankidetzako eredu gisa hautatutako zazpi programen webguneak (felcode.org, datarik gabe; gva.es, 2018; Yokohama.lg.jp, 2020; akual.org, 2022; fdfa.be, 2022b; fondogalego.gal, 2022; vitoria-gasteiz.org, 2022) eta zortzi esparru legal eta estrategiko (DOGV, 2018; Fons Catalá, 2018; Government of Flanders, 2019, 2021; DAECT, 2020; AECID, 2021; JICA, 2021; AACID, 2022).

Gainera, tartean dauden erakundeetako langile hauei elkarrizketak egin zaizkie: Jordi Garrell, Lankidetza eta Elkartasun Funtsen Konfederazioko (CONFOCOSko) zuzendari nagusia; Nikolay Murashkin, Nazioarteko Lankidetzaren Japoniako Agentziako (JICAko) Ogata Institutuko ikertzaile elkartua; Amandine Sabourin, Garapen Politika Kudeatzeko Europako Zentroko (ECDPMko) politiketako eragilea; Marlène Simeone, PLATFORMAko idazkaritzako zuzendaria; Lourdes Sanchís, Valentziako Generalitateko garapenerako lankidetzako zuzendariordea; Olga Pozo Teba, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Andaluziako Agentziako Latinoamerikako Unitateko burua; Raúl Muñoz Jiménez, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Andaluziako Agentziako Ertamerikako Unitateko koordinatzailea; Maite Garmendia Eguinoa, eLankidetza — Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lankidetzako teknikaria; eta Noemí de la Fuente Pereda, eLankidetza — Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako koordinazio estrategikoko arduraduna.

# GLOD-ARI BURUZKO DATUAK, 2020

| Eragilea | Herrialdea | (1) GKEak M USD | % | (2) Laguntza Teknikoa M USD | % | (3) Proiektuak M USD | % | (2+3) Zuzenekoa M USD | % | (1+2+3) Nazioartekoa M USD | % | (4) Ikasleak M USD | % | (5) Errefuxiatuak M USD | % | (6) Hezkuntza globala M USD | % | (7) Administrazioa M USD | % | (4+5+6+7) Tokian bertakoa M USD | % | GUZTIRA GLOD-A |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Identifikatuak:* | | 238,06 | | 27,37 | | 84,09 | | 111,47 | | 349,53 | | 4,34 | | 8,98 | | 43,64 | | 18,70 | | 75,66 | | **425,19** |
| Flandria | Belgika | 33,83 | % 45 | 6,37 | % 9 | 31,91 | % 43 | 38,27 | % 51 | 72,10 | % 97 | 0,70 | % 1 | 0,00 | % 0 | 0,52 | % 1 | 1,09 | % 1 | 2,31 | % 3 | **74,41** |
| Euskadi | Espainia | 40,75 | % 76 | 0,02 | % 0 | 2,22 | % 4 | 2,25 | % 4 | 43,00 | % 80 | 0,08 | % 0 | 2,43 | % 5 | 5,87 | % 11 | 2,46 | % 5 | 10,83 | % 20 | **53,83** |
| Katalunia | Espainia | 19,71 | % 38 | 6,80 | % 13 | 4,01 | % 8 | 10,81 | % 21 | 30,52 | % 59 | 0,00 | % 0 | 6,44 | % 12 | 9,54 | % 18 | 5,18 | % 10 | 21,16 | % 41 | **51,68** |
| Valentziako Erk. | Espainia | 27,38 | % 75 | 0,16 | % 0 | 4,48 | % 12 | 4,64 | % 13 | 32,02 | % 88 | 0,09 | % 0 | 0,00 | % 0 | 4,46 | % 12 | 0,00 | % 0 | 4,55 | % 12 | **36,57** |
| Andaluzia | Espainia | 21,77 | % 62 | 0,00 | % 0 | 6,09 | % 17 | 6,09 | % 17 | 27,87 | % 79 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 2,84 | % 8 | 4,38 | % 12 | 7,22 | % 21 | **35,09** |
| Valonia | Belgika | 9,97 | % 38 | 2,83 | % 11 | 13,09 | % 50 | 15,93 | % 61 | 25,90 | % 99 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,18 | % 1 | 0,00 | % 0 | 0,18 | % 1 | **26,08** |
| Bavaria | Alemania | 6,49 | % 39 | 6,97 | % 42 | 1,89 | % 11 | 8,86 | % 54 | 15,35 | % 93 | 0,73 | % 4 | 0,00 | % 0 | 0,29 | % 2 | 0,14 | % 1 | 1,16 | % 7 | **16,50** |
| Eskozia | Erresuma Batua | 13,06 | % 81 | 0,00 | % 0 | 2,93 | % 18 | 2,93 | % 18 | 15,99 | % 100 | 0,05 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,05 | % 0 | **16,04** |
| Nafarroa | Espainia | 13,84 | % 92 | 0,00 | % 0 | 0,11 | % 1 | 0,11 | % 1 | 13,96 | % 93 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,90 | % 6 | 0,23 | % 2 | 1,13 | % 7 | **15,08** |
| Ipar Renania-Westfalia | Alemania | 0,78 | % 6 | 0,82 | % 7 | 4,32 | % 34 | 5,14 | % 41 | 5,91 | % 47 | 0,23 | % 2 | 0,00 | % 0 | 5,34 | % 43 | 1,09 | % 9 | 6,65 | % 53 | **12,57** |
| Hanburgo | Alemania | 0,30 | % 3 | 0,00 | % 0 | 9,76 | % 88 | 9,76 | % 88 | 10,06 | % 91 | 0,47 | % 4 | 0,00 | % 0 | 0,50 | % 5 | 0,00 | % 0 | 0,97 | % 9 | **11,03** |
| Extremadura | Espainia | 6,60 | % 69 | 0,00 | % 0 | 0,06 | % 1 | 0,06 | % 1 | 6,66 | % 70 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 1,43 | % 15 | 1,42 | % 15 | 2,85 | % 30 | **9,51** |
| Galizia | Espainia | 5,77 | % 73 | 0,11 | % 1 | 0,50 | % 6 | 0,62 | % 8 | 6,38 | % 80 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,80 | % 10 | 0,77 | % 10 | 1,57 | % 20 | **7,95** |
| Balear uharteak | Espainia | 4,46 | % 74 | 0,00 | % 0 | 0,70 | % 12 | 0,70 | % 12 | 5,16 | % 85 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,90 | % 15 | 0,00 | % 0 | 0,90 | % 15 | **6,06** |
| Baden-Württemberg | Alemania | 0,72 | % 13 | 0,45 | % 8 | 1,32 | % 23 | 1,77 | % 31 | 2,49 | % 44 | 0,55 | % 10 | 0,00 | % 0 | 2,66 | % 47 | 0,00 | % 0 | 3,21 | % 56 | **5,71** |
| Madril | Espainia | 4,42 | % 85 | 0,00 | % 0 | 0,06 | % 1 | 0,06 | % 1 | 4,49 | % 86 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,16 | % 3 | 0,56 | % 11 | 0,72 | % 14 | **5,20** |

| Eragilea | Herrialdea | (1) GKEak M USD | % | (2) Laguntza Teknikoa M USD | % | (3) Proiektuak M USD | % | (2+3) Zuzenekoa M USD | % | (1+2+3) Nazioartekoa M USD | % | (4) Ikasleak M USD | % | (5) Errefuxiatuak M USD | % | (6) Hezkuntza globala M USD | % | (7) Administrazioa M USD | % | (4+5+6+7) Tokian bertakoa M USD | % | GUZTIRA GLOD-A |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gaztela eta Leon | Espainia | 4,39 | % 88 | 0,00 | % 0 | 0,06 | % 1 | 0,06 | % 1 | 4,45 | % 89 | 0,02 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,27 | % 5 | 0,25 | % 5 | 0,55 | % 11 | **5,00** |
| Aragoi | Espainia | 4,25 | % 89 | 0,06 | % 1 | 0,12 | % 2 | 0,18 | % 4 | 4,43 | % 93 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,33 | % 7 | 0,00 | % 0 | 0,33 | % 7 | **4,76** |
| Asturias | Espainia | 4,26 | % 91 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 4,26 | % 91 | 0,00 | % 0 | 0,11 | % 2 | 0,33 | % 7 | 0,00 | % 0 | 0,45 | % 9 | **4,71** |
| Gales | Erresuma Batua | 3,39 | % 100 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 3,39 | % 100 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | **3,39** |
| Hessen | Alemania | 0,44 | % 13 | 2,11 | % 62 | 0,00 | % 0 | 2,11 | % 62 | 2,54 | % 75 | 0,34 | % 10 | 0,00 | % 0 | 0,50 | % 15 | 0,00 | % 0 | 0,84 | % 25 | **3,38** |
| Kanariak | Espainia | 2,46 | % 98 | 0,00 | % 0 | 0,05 | % 2 | 0,05 | % 2 | 2,52 | % 100 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | **2,52** |
| Errioxa | Espainia | 1,67 | % 71 | 0,00 | % 0 | 0,11 | % 5 | 0,11 | % 5 | 1,79 | % 76 | 0,04 | % 2 | 0,00 | % 0 | 0,50 | % 21 | 0,02 | % 1 | 0,56 | % 24 | **2,34** |
| Berlin | Alemania | 0,27 | % 13 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,27 | % 13 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 1,86 | % 87 | 0,00 | % 0 | 1,86 | % 87 | **2,13** |
| Renania-Palatinatua | Alemania | 1,51 | % 73 | 0,02 | % 1 | 0,00 | % 0 | 0,02 | % 1 | 1,53 | % 74 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,08 | % 4 | 0,45 | % 22 | 0,53 | % 26 | **2,05** |
| Kantabria | Espainia | 1,62 | % 88 | 0,00 | % 0 | 0,06 | % 3 | 0,06 | % 3 | 1,67 | % 91 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,16 | % 9 | 0,00 | % 0 | 0,16 | % 9 | **1,83** |
| Schleswig-Holstein | Alemania | 0,37 | % 24 | 0,04 | % 2 | 0,00 | % 0 | 0,04 | % 3 | 0,41 | % 26 | 0,06 | % 4 | 0,00 | % 0 | 1,03 | % 66 | 0,06 | % 4 | 1,15 | % 74 | **1,56** |
| Saxonia | Alemania | 1,00 | % 76 | 0,22 | % 17 | 0,05 | % 3 | 0,26 | % 20 | 1,26 | % 96 | 0,05 | % 4 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,05 | % 4 | **1,31** |
| Bruselako eskualdea | Belgika | 0,86 | % 67 | 0,00 | % 0 | 0,17 | % 13 | 0,17 | % 13 | 1,03 | % 80 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,26 | % 20 | 0,00 | % 0 | 0,26 | % 20 | **1,29** |
| Saxonia Beherea | Alemania | 0,08 | % 9 | 0,25 | % 28 | 0,00 | % 0 | 0,25 | % 28 | 0,33 | % 38 | 0,18 | % 20 | 0,00 | % 0 | 0,07 | % 8 | 0,30 | % 34 | 0,55 | % 62 | **0,88** |
| Bremen | Alemania | 0,21 | % 24 | 0,08 | % 10 | 0,00 | % 0 | 0,08 | % 10 | 0,29 | % 34 | 0,11 | % 13 | 0,00 | % 0 | 0,46 | % 53 | 0,00 | % 0 | 0,57 | % 66 | **0,86** |
| Turingia | Alemania | 0,05 | % 7 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,05 | % 7 | 0,57 | % 75 | 0,00 | % 0 | 0,14 | % 18 | 0,00 | % 0 | 0,70 | % 93 | **0,76** |
| Brandenburgo | Alemania | 0,32 | % 47 | 0,04 | % 6 | 0,00 | % 0 | 0,04 | % 6 | 0,37 | % 53 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,33 | % 47 | 0,00 | % 0 | 0,33 | % 47 | **0,69** |
| Mecklenburg-Aurrepomerania | Alemania | 0,05 | % 8 | 0,02 | % 3 | 0,00 | % 0 | 0,02 | % 3 | 0,07 | % 11 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,60 | % 89 | 0,00 | % 0 | 0,60 | % 89 | **0,66** |
| Gaztela-Mantxa | Espainia | 0,29 | % 49 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,29 | % 49 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,30 | % 51 | 0,30 | % 51 | **0,59** |
| Murtzia | Espainia | 0,36 | % 67 | 0,00 | % 0 | 0,02 | % 3 | 0,02 | % 3 | 0,38 | % 71 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,16 | % 29 | 0,00 | % 0 | 0,16 | % 29 | **0,54** |
| Saxonia-Anhalt | Alemania | 0,04 | % 14 | 0,00 | % 1 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 1 | 0,05 | % 15 | 0,07 | % 23 | 0,00 | % 0 | 0,19 | % 62 | 0,00 | % 0 | 0,26 | % 85 | **0,31** |
| SARRE | Alemania | 0,30 | % 100 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,30 | % 100 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | **0,30** |
| *Identifikatu gabeak* | | 225,28 | | 43,91 | | 15,87 | | 59,78 | | 285,06 | | 1.705,60 | | 249,29 | | 18,69 | | 19,14 | | 1.992,73 | | **2.277,79** |

| | | (1) GKEak | | (2) Laguntza Teknikoa | | (3) Proiektuak | | (2+3) Zuzenekoa | | (1+2+3) Nazioartekoa | | (4) Ikasleak | | (5) Errefuxiatuak | | (6) Hezkuntza globala | | (7) Administrazioa | | (4+5+6+7) Tokian bertakoa | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Eragilea** | **Herrialdea** | M USD | % | M USD | % | M USD | % | M USD | % | M USD | % | M USD | **%** | M USD | **%** | M USD | **%** | M USD | **%** | M USD | **%** | **GLOD-A** |
| Alemaniako landerrak | Alemania | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 1.696,70 | % 100 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 1.696,70 | % 100 | **1.696,70** |
| Kanadako probintziak | Kanada | 18,69 | % 11 | 0,63 | % 0 | 0,21 | % 0 | 0,83 | % 0 | 19,52 | % 11 | 1,00 | % 1 | 155,46 | % 88 | 0,37 | % 0 | 0,37 | % 0 | 157,19 | % 89 | **176,71** |
| Frantziako Kanpo Arazoetako Ministerioa | Frantzia | 36,26 | % 26 | 12,81 | % 9 | 4,75 | % 3 | 17,57 | % 13 | 53,83 | % 39 | 0,40 | % 0 | 77,47 | % 56 | 2,83 | % 2 | 4,92 | % 4 | 85,62 | % 61 | **139,44** |
| Espainiako udalak | Espainia | 94,58 | % 83 | 0,15 | % 0 | 3,03 | % 3 | 3,18 | % 3 | 97,76 | % 85 | 0,06 | % 0 | 0,61 | % 1 | 11,18 | % 10 | 4,80 | % 4 | 16,65 | % 15 | **114,41** |
| Suitzako kantonamenduak | Suitza | 54,97 | % 82 | 0,15 | % 0 | 1,61 | % 2 | 1,76 | % 3 | 56,72 | % 85 | 3,86 | % 6 | 2,81 | % 4 | 2,66 | % 4 | 0,79 | % 1 | 10,11 | % 15 | **66,84** |
| Sail artekoa | Frantzia | 0,55 | % 2 | 28,92 | % 84 | 0,00 | % 0 | 28,92 | % 84 | 29,46 | % 86 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 4,95 | % 14 | 4,95 | % 14 | **34,41** |
| Austriako probintziak | Austria | 8,55 | % 38 | 0,00 | % 0 | 0,79 | % 4 | 0,79 | % 4 | 9,34 | % 41 | 0,06 | % 0 | 12,34 | % 55 | 0,69 | % 3 | 0,14 | % 1 | 13,23 | % 59 | **22,57** |
| Espainiako unibertsitate publikoak | Espainia | 0,07 | % 1 | 1,13 | % 10 | 2,81 | % 25 | 3,93 | % 35 | 4,00 | % 36 | 3,07 | % 28 | 0,07 | % 1 | 0,80 | % 7 | 3,17 | % 29 | 7,12 | % 64 | **11,12** |
| Italiako probintziak | Italia | 5,65 | % 78 | 0,00 | % 0 | 1,47 | % 20 | 1,47 | % 20 | 7,12 | % 98 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,15 | % 2 | 0,00 | % 0 | 0,15 | % 2 | **7,27** |
| Belgikako udalak | Belgika | 5,09 | % 100 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 5,09 | % 100 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | **5,09** |
| Japoniako prefekturak | Japonia | 0,49 | % 48 | 0,00 | % 0 | 0,29 | % 28 | 0,29 | % 29 | 0,78 | % 77 | 0,24 | % 23 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,24 | % 23 | **1,02** |
| Portugalgo udalak | Portugal | 0,05 | % 3 | 0,00 | % 0 | 0,80 | % 49 | 0,80 | % 49 | 0,85 | % 53 | 0,21 | % 13 | 0,54 | % 33 | 0,02 | % 1 | 0,01 | % 0 | 0,77 | % 47 | **1,62** |
| Japoniako udalak | Japonia | 0,34 | % 59 | 0,12 | % 21 | 0,11 | % 20 | 0,24 | % 41 | 0,58 | % 100 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | 0,00 | % 0 | **0,58** |
| **GUZTIRA** | | **463,34** | | **71,28** | | **99,96** | | **171,25** | | **634,59** | | **1.709,93** | | **258,27** | | **62,33** | | **37,85** | | **2.068,38** | | **2.702,97** |

GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO